

# Berrigara



Inigo Igarza  
Nikaraguan egon  
da hilabetez.

## Bergararrak Hirugarren munduan laguntzen

Herriko brigadistak Ertamerikan

CITROËN BERLINGO berria

*Askatasunera irekia!*


Alboko atea  
Injekzio zuzeneko HDI  
turbo diesel motorra



**ION AUTOAK**

Amillaga 36, Bergara  
Tf. 943 76 47 49 / 73

**CITROËN**





99/00 oraina euskaraz da



## EUSKARA IKASTAROAK

**Maila guztiak**

EGA eta alfabetatze  
EGako atari froga **bertan**

**Informazioa eta matrikula:**  
**AKULU EUSKALTEGIA**  
Masterreka 13.  
Tf: 943 76 05 18

Klaseak goiz eta arratsaldez  
**Errelebotara** moldatzen gara

**Izena emateko azken eguna:**  
**irailaren 29a**



# eman izena aek-n



## IRALA

Bideoak



**VIDEOMATIC**  
Plus

- Zure moduko bezeroendako lehen mailako zerbitzua
- Hatzamar bat mugitzeko gauza bazara, Videomatic erabiltzeko ere bai  
*DVD bideoak ere badauzkagu*
- Bideo berri guztiak dauzkagu
- Zatoz prezioez galdetzera!



Kruz Gallastegi 7. Telefonoa: 943 76 21 81. Faxa: 943 76 73 33. E-maila: [video\\_irala@jet.es](mailto:video_irala@jet.es)





# Mutila neska bila (eta gainerako barianteak)

Elena Laka / Abokatua

Jende aurrean gorritu gabe aitortzeko modukoak diren nire bizioen artean, egunkarietako (eta BERRIGARAKO) iragarkiak irakurtzea dago. Eta azkenengo bi asteetan agertu den anuntzio batek deitu dit atentzioa: gizon batek, BERRIGARAKO iragarki baten bitartez, emakume bat topatu nahi du. Gure inguruko egunkarietan gero eta tarte handiagoa eskaintzen zaie iragarki pertsonalei, jendea bikote bila dabilen iragarkiei, baina lehen aldia da nik, behintzat, BERRIGARAN horrelako bat ikusten dudana.

Iragarki hauek irakurtzerakoan beti galdetu izan diot neure buruari ea funtzionatuko ote duten. Euskal Herria oso txikia da; denok ezagutzen dugu elkar, eta beti iruditu zait bide hau erabiliz bilatzen diren erlazioek hiri handi batek ematen duen anonimotasunean gordeztea eskatzen dutela. Soziologo batek, ostera, ezetz esaten zidan, hain zuzen horrelako iragarkiak perfektoak direla gurea bezalako herri txiki eta itxi batean: jendeari koadrilatik kanpo harremanak egitea kosta egiten zaiola, eta koadrila sakabanatu egin denean edo koadrilako guztiek bikotea aurkitu dutenean oso bakarrik sentitzen dela, nora jo ez dakiela,


eta orduan aukeratzen duela iragarki bat ipintzea jende berria (eta tartean bikotea) ezagutu nahian. Helburua azkenean jende berriaren iturria agortuta duen ingurutik kanpoko harremanak egitea da.

Helburu zahar horri teknologia berriek egin dioten azken ekarpena internet da, eta batez ere sarean funtzionatzen duten txat direlakoak. Txat hauek, seguru asko sobran dago azalpena, jendea elkartu eta berriketan dabilen interneteko guneak dira. Duela gutxi irakurri dudan artikulu batean esaten denez, harreman birtualak, hau da, ordenagailua komunikabide bezala erabiltzen duten

*"Harreman birtualak, ordenagailua komunikabide bezala erabiltzen duten maitasunak, modan daude, eta ez bakarrik ordenagailuarekin jaiotzen diren gaztetxoaren artean"*

maitasunak, modan daude, eta ez bakarrik ordenagailuarekin jaiotzen diren gaztetxoaren artean. Ez ezazue pentsa, ostera, teknologiaren aurka marmarka dabilzan moduan, harreman mota hau hotza edo inpersonala denik. Ordenagailu bidezko harremanetan hitz idatzia da komunikazioaren eta elkar ezagutzearen giltzarria, antzinako eskutitzen moduan. Eta ez dezagun hitzaren boterea gutxietsi. Ziber-nautek jendea ezagutzen dute, maitemindu, haserretu, sufritu, gozatu egiten dute horrelako harremanetan, koadrilan edo zapatu gau batean ezagutu duzun mutil horrekin bezala, igual-igual. Hori bai, elkar ezagutzeko modua aldatu egiten da beharbada, harreman tradizionaletan kanpotik barrura ezagutzen badugu elkar, hau da, itxura fisikoa lehenik eta buru barrukoa gero, interneteko harremanetan barrutik kanpora doa ezagutzera bidea: lehenik pentsamendua, ideiak, sentimenduak, gero ikusiko dugu, beharbada, gure solaskidearen itxura fisikoa. Aldaketak dira, baina funtsa berdina da, internetekin ala txalapartarekin. Joan zen astean iragarkia ipini zuenari edo inoiz bururatu baina sekula ausartu ez denari ideiak ematen baino ez naiz saiatu.<

■ barruan



**Iñaki Eguren**

Harrijasotzailea izandakoa

*"15 urtetik 20 urtera bitartean aritu nintzen harria altxatzen eta sufritzen ikasi nuen"*

23.



**Usoa Mendikute**

Pintorea

*"Arte zaletu asko egon arren, Bergarako jende gutxik egiten ditu Arte Ederretako ikasketak"*

26.



**Teresa Aranzibia**

Musika Eskolako idazkaria

*"Lanik atsegiñena? Umiekin harremana. Gorrotagarrixena, kontabilidatea"*

29.



## orain dela...

### EUSKAL HERRIAN GERTATUA

**1893.** Irailaren 20an Heraklio Fournier jaio zen Gasteizen.  
**1836.** Irailaren 24an Espartero jeneralak iparraldeko tropa liberalen agintea hartu zuen.  
**1886.** Irailaren 25ean Jesus Guridi musikaria jaio zen Gasteizen.

## zozketak

### BONO LOTO

#### Eguakitza 17

7-8-10-30-39-44 (osag.19/itz.8)

#### Astelehena 20

2-11-14-15-19-28 (osag.13/itz.3)

#### Martitzena 21

3-9-13-29-32-43 (osag.42/itz.1)

#### Eguaztena 22

5-16-22-34-41-46 (osag.19/itz.4)

### PRIMITIVA

#### Zapatua 18

3-9-31-39-43-45 (osag.32/itz.1)

#### Domeka 19 *Saritzarra*

1-5-12-14-28-37 (osag.22/itz.4)

### ONCE

**Eguakitza 17:** 11.310 (142 seriea)

**Astelehena 20:** 30.187

**Martitzena 21:** 74.141

**Eguaztena 22:** 87.303

### BESTE BATZUK

#### Xamatz eta Aritzetairen aldeko zozketa.

Txerria edo 50.000 PTA:

3.854. Ordezkoa: 9.965

#### Bedelkarren 15.000 PTAko

#### 15 erosketa-bono:

Ibon Bilbao

Amaia Moreno

Mari Angeles Gil

Harkaitz Elkoru

Aintzane Gardoki

Lorentxo Laskurain

Maite eta Imanol Garitano

Eider Altuna

Aitzol Lenisoro

Juan Luis Etxaniz

Veronica Benitez

Jose Ramon Elkoroberezibar


Maria Asun Plazaola

Mikel Castelo

Jorge Gonzalez

## Eguraldia

*Igeldoko metereologi behatokia*



Eguakitz eta zapatuan hodeiak eta ostarte zabalak tar-tekaturko dira zeruan eta hai-zeak hego-mendebaldetik jo-ko du. Domekan, berriz, oke-rrera egingo du: estalita age-riko zaigu zerua eta euria egin dezake.

## Ilargiaren aldiak



Ilgora: irailak 17



Ilbete: irailak 25



Ilbehera: urriak 2



Ilberri: urriak 9

## Eguzkia

*Domeka, irailak 26*



Sortu: 08:08



Gorde: 20:07

## Temperaturak eta euria Bergaran

*Luis Mari Agirre*

|               | max. | min. | euria |
|---------------|------|------|-------|
|               | °C   | °C   | l/m²  |
| Eguena 16     | 28   | 9    | 4,3   |
| Eguakitza 17  | 21   | 14   | -     |
| Zapatua 18    | 20   | 9    | 2,5   |
| Domeka 19     | 23   | 15   | -     |
| Astelehena 20 | 23   | 7    | 0,3   |
| Martitzena 21 | 22   | 12   | 2,5   |
| Eguaztena 22  | 27   | 15   | 0,5   |

## bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

### Atxurtu

1. Lurra atxurrez landu.

- *Baiña, zetan atxurtu dozu ori, perrejilla ereindda neukan da.*

2. Mozkurtu.

- *Banoia etxera, ziero atxurtu baiño len.*



JOSU OKINA

## hamaika ikusteko jaio ginen!

### Isileko frankotiratzailleak

Mira teleskopikodun errifleak eta gailu infragorriak erabiltzen dituzte isileko ehiztari britainiar batzuek ehizan egiteko. Tresneria sofistikatu horri esker hamar mila animalia inguru hiltzen dituzte urtero. Izan ere, tentazio handia da ehizatutakoaren trukean jasotzen den dirua. Orein baten adajek 65.000 pezetako prezioa izan dezake merkatu beltzean.

## Farmaziak

### Eguakitza 24:

ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*

### Zapatua 25:

MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*

### Domeka 26:

MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*

### Astelehena 27:

CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*

### Martitzena 28:

PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

### Eguaztena 29:

GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*

### Eguena 30:

ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*

## Ogia

**Domeka 26:** Konde.

## Telefonoak

### OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak 112

DYA 943 78 71 57

Gurutze Gorria 943 76 55 76

Larrialdiak 943 46 11 11

Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40

Anbulantzia 943 55 49 62

Udaltzaingoa 943 77 91 06

Ertzaintza 943 76 53 40

Suhiltzaileak 943 78 28 00

Osasun Etxea 943 76 24 40

Arrasateko ospitala 943 03 53 00

Asepeyo 943 76 16 43

Pakea 943 76 13 43

Angiozarko medikua 943 78 90 27

Antzuolako medikua 943 76 62 23

### GARRIAOAK

Euskotren 943 45 01 31

PESA 902 10 12 10

Taxiak 943 76 19 50

RENFE 943 28 35 99

### UDALA

Udaletxea 943 77 91 00

Udal Artxiboa 943 77 91 32

Igerilekuak 943 76 20 51

Kultur Etxea 943 77 91 58

Liburutegia 943 77 91 62

Mizpirualde Egoitza 943 76 13 66

### BESTELAKOAK

Epaitegia 943 76 14 50

Erregistroa 943 76 13 15

Jardun 943 76 36 61

Jubilatuena Etxea 943 76 21 40

Postetxea 943 76 26 65



# zorion agurrak



**Alazne Jauregi**  
Irailaren 27an  
4 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.



**Mikel Arroyo**  
Irailaren 26an  
5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.



**Mireia Iturrosp**  
Irailaren 29an  
8 urte.  
Urte askotarako!  
Familia.



**Maddi Iñarra**  
Irailaren 28an  
13 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.



**Nerea Mujika**  
29an 16 urte. Urte  
askotarako! Badaki-  
zu zer zor didazun...  
Tiki, tiki tik.



**Amaia Begiristain**  
Irailaren 2an  
6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.



**Izaskun Iztueta**  
Irailaren 26an  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Mikel eta Miren.



**Manu Iztueta**  
Irailaren 26an  
urtebetetzea.  
Urte askotarako!  
Mikel eta Miren.



**Jon Mikel  
Madariaga**  
24an 13. Urte asko-  
tarako! Lehengusuak  
eta amona Juani.



**Iker Ortuzar**  
Irailaren 24an  
3 urte.  
Urte askotarako!  
Aitxa eta ama.



**Igor Igartua**  
Irailaren 26an  
6 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Amaia Mendibil**  
Irailaren 24an  
12 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Irati Madariaga**  
Irailaren 25ean  
6 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.



**Maialen Esnaola**  
Irailaren 28an  
5 urte.  
Urte askotarako!  
Amama Feli.



**Jon Garmendia**  
Irailaren 27an  
22 urte.  
Urte askotarako!  
Lagunak eta familia.



**Julen Mendizabal**  
Irailaren 24an  
8 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



**Jone Albeniz**  
Irailaren 29an  
7 urte.  
Urte askotarako!  
Amama Feli.



**Nekane Zapata**  
Irailaren 30ean  
7 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak.



**Iker Gonzalez**  
Irailaren 25ean  
10 urte. Urte asko-  
tarako eta muxu  
handi bat! Etxeokak.



**Alaitz Menor**  
Irailaren 25ean  
11 urte.  
Urte askotarako!  
Etxeokak.

## hildakoak

### BERGARA

**Maria Teresa Arregi Jauregi**  
Irailak 16, 80 urte

**Juana Noarbe Portela**  
Irailak 17, 83 urte

**Martin Guridi Arrieta**  
Irailak 17, 87 urte

**Milagros Palacios Garmendia**  
Irailak 18, 47 urte

**Nikomedes Larrañaga Gallastegi**  
Irailak 22, 74 urte

### ANTZUOLA

**Paulino Lete Urkiola**  
Abuztuak 4, 86 urte

**Patricia Lizarralde Estenaga**  
Abuztuak 6, 90 urte

**Josefina Lizarralde Unzueta**  
Abuztuak 12, 85 urte

**Xabier Amasorrain Usabiaga**  
Irailak 11, 58 urte

## mezak

### Santa Marina

Domekak:  
11:30, 13:00.  
Zapatuak: 19:00.  
Lanegunak: 19:30.

### San Pedro

Domekak:  
09:30, 12:30.  
Zapatuak eta  
lanegunak: 19:00.

### Osintxu

Domekak: 11:30.  
Zapatuak: 19:00.

### Elosu

Domekak: 10:00.

### Ubera

Domekak: 10:30.

### San Juan

Domekak: 11:00.

### Basalgo

Domekak: 13:00.

### San Prudentzio

Domekak: 10:30.

### Labegarieta

Domekak: 11:00.

### San Lorentzo

Zapatuak: 20:00.

### Angiozar

Domekak: 10:30.

Eguakitza: 19:00.

### Monja Zaharrak

Domekak: 19:30.

Zapatuak eta

lanegunak: 20:00.

### Mizpirualde

Domekak: 11:45.

Zapatuak eta

lanegunak: 11:45.

### Mariaren

**Lagundia**

Domekak: 10:00.

Zapatuak eta

lanegunak: 09:00.

### Antzuola

Domekak:

09:00, 11:30.

Zapatuak eta

lanegunak: 19:30.

### Uzarraga

Domeka: 10:00.

## jaiotakoak

### BERGARA

**Beñat Pelicano Sotil**  
Irailak 13

**Alex Amasorrain Azkarate**  
Irailak 15

**Kepa Roige Davila**  
Irailak 16

### ANTZUOLA

**Beñat Kortabarría Berasategi**  
Ekainak 30

**Kepa Altube Miner**  
Uztailak 2

**Amalur Muguruza Pildain**  
Abuztuak 20

# SANTOS

## IRRATI-TB

TELEFONIA MUGIKORRA  
• SUKALDEKO ALTZARIAK •  
ARGIZTAPENA

Masterreka 2. Tf. 943 76 26 10

Datorren asteko alean, **URRI**aren 1a eta 7a bitartekoen zorion agurrak argitaratuko ditugu.



Urteaga 9  
Tf. 943 76 18 45

## IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK  
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA  
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA  
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

## PISZINETAKO TABERNA

Bokadiloak  
Pintxoak  
Kazuelitak

Boni Laskurain /g  
Tf. 943 76 53 55



## MUSIKA

► **Factoria 77 eta The Elevators** zapatuan, 23:00etan, Nahikari tabernan.

► **Etsaiak, Bi kate, Brutal Melody eta Likido antifasista** taldeak zapatuan, 22:00etan, Jam aretoan.

## ERAKUSKETAK

► **Antton Arrillagaren margoak** Nahikarin.

## LEHIAKETAK

► **Batetik bestera kontaketa lehiaketa.** Hiru sail bereiztuko dira: bidaiaren kontaketa testimoniala, kontaketa literarioa eta bidaiaren argazkiak. Lanak irailaren amaierarako aurkeztu beharko dira. Argibideak Oñatiko Gaztelekuan, 943 71 60 94 zenbakian.

► **Azken agurra** gutun sariaketa. Idazlanek euskaraz behar dute izan, estandarrean nahiz euskalkian. Idazkiek testamentu edo behinbetiko agur gutunaren forma izatea hobetsiko da. Lanak urriaren 1era arte jasoko dira. Argibide gehiago, Ondarroako Udaleko Euskara Zerbitzuan edo 94 613 43 44 zenbakian.

► **"Gazteak eta 2000. urtea"** argazki lehiaketa, Arrasateko Gazte Zerbitzuak

## JAIAK

### San Migel

**Non:** Angiozarren  
**Noiz:** asteburu osoan

Arbiaska pilotalekuaren inaugurazioa izango da aurtengo San Migel jaietako ekitaldi nagusia Angiozarren. Domekan, 11:45tan, Jose Luis Aperribai apaizak frontoiaren bedeinkapena egingo du eta udal agintariak bertan izango dira. Inaugurazio ekitaldiaren ondoren, pilota partiduak jokatuko dira: Ansolak eta Salbideak Gallastegi eta Gorostizaren aurka neurtuko dituzte indarrak; gero, Esain-Goñi III.a eta Olaizola I.a-Auskin bikoteak izango dira aurrez aurre. Frontoiaren estreinaldiak jarraipena izango du 17:30etatik aurrera, Nikolas Agirrezabal zenaren omenezko herri kirol jaialdia izango da eta. Bertan, harrijasotzaileak (Zelai, Goenatxo eta Iñaki Eguren, besteak beste), aizkolariak (Arrospide, Mindegia eta Harria II.a tartearen), trontzalariak, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak, dantzariak eta trikitilariak izango dira.

Bestalde, gaur, eguakitzan, gaueko 11etatik aurrera Zartateko, Frenopatics, X-AT, Anger eta Iskanbila taldekin kontzertua izango da. Zapatuan, 15:30etan plater tiraketa jokatuko da eskonbreran; 18:30etan, mus txapelketa Pagomendi elkartean, eta 21:30etan sardina eta saiheski jana Plazan (izen-ematea, 1.000 pezeta). Afalostean, Musutruk taldearekin dantzaldia. Domekan, berriz, 10:30etan, Meza Nagusia izango da eta, jarraian, artisau azoka zabalduko. Bukatzeko, eguaztenean, San Migel egunean, 11:00etan, meza; jarraian, luntxa banatuko da Pagomendi elkartean eta 17:30etan umeentzako jolasak izango dira. Iluntzean, ohizko San Migelen zeruratzea egingo da, jaiei bukaera emanez.



Domekan lehendabiziko pilota partiduak jokatuko dira Arbiaskan.

deituta. Bertan Deba Garaiko 14-18 bitarteko gazteek eta 19-35 urte bitarteko edozein afizionatuk parte hartu ahal izango du. Zuri-beltzeko zein koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira. Lanak entregatzeko epea urriaren 8an amaituko da. Argibide gehiago nahi izanez

gero, eitu 943 77 00 65 eta 943 79 80 56 telefonoetara.

pezeta (35.000 Jarduneko bazkide ez direnentzat). Argibideak Jardunen. 943 76 08 19.

## IKASTAROAK

► **Begirale ikastaroa** urritik maiatzera bitartean, asteburuetan. Matrikula: 30.000

► **Moises Aspiazua** dantza taldeak helduei zuzendutako fandango eta arin-arin ikastaroak emango ditu urriaren 2tik aurrera. Izen-ematea 2.000

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

ORDUTEGIA:

8.00-13.00 eta 15.00-20.00

☎ 943 76 19 54 BERGARA  
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

**Jose M. Martin**

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industrial

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA  
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

**Aldoka  
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

**ETXAGI  
JATETXEA**

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12



pezeta hileko. Bestalde, umeen klaseak urriaren 4an hasiko dira, 17:00etatik 18:00etara. 943 76 15 40.

### ► Urtxintxa eskolaren

**ikastaroak:** astialdiko begiralea, gizarte kultur dinamizatzailea, ingurugiroko hezitzailea, eta beste hainbat. Izen-ematea urriaren 1era arte zabalik. Argibideak: 943 42 79 27.

## DEIAK

► **Kilometroak 99** urriaren 3an Oreretan. Autobusez joateko txartelak (1.200 pezeta) Aranzadi Ikastolan edo Jardunen irailaren 30era arte. Autobusak 9:15etan irten eta 20:00etan itzuliko dira.

► **Bergarako Peña Athletic** taldearen bilera martitzenean, 19:30etan, Miguel Altunako edifizio zaharrean.

► **Asisko San Frantzisko-ren** oroimenezko bederatziruena urriaren 2an, 3an eta 4an, 19etan, Trinitate elizan.

► **Hegoamerikako haurrei** zuzendutako eskolako materiala jasoko da Correo-seko bulegoan urriaren 5era arte.

► **EAJ.** Domekan, irailaren 26an, Alderdi Eguna ospatuko da Salburuan. Bertara joateko autobusa goizeko 9etan aterako da autobus geltokitik.

► **Mendi irteera** Orduña-Lendoñora domekan, irailaren

26an. Txartelak Pol-Pol tabernan salgai.

► **San Joxepe** jubilatuen elkarteak urriaren 7an Lodosora egun osoko irteera antolatu du. 943 76 21 40.

► **Udal Euskaltegian** matrikula epea zabalik dago. Argibideak euskaltegian edo 943 76 44 53 zenbakian.

## KINTADAK

► **1950ean jaiotako enafaria** irailaren 25ean Antxonin jaiatzean. Izen-ematea (1.000 pezetako depositoa) bertan.

► **1948an jaiotako enafaria** irailaren 25ean Txuringo jaiatzean. Osintxura joateko autobusa 21:00etan aterako da Frontoitik. Izen-ematea (6.000 pezeta) Euskadiko Kutxan.

► **1961ean jaiotako enafaria** urriaren 2an Antxonin. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) Nahikari eta Dixula tabernetan.

► **1925ean jaiotako enafaria** urriaren 3an Torrekua erretegiaren. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) bertan.

► **1933an jaiotako enafaria** urriaren 17an. Goizean hildakoen oroimenezko meza izango da eta ondoren bazkaria Antxonin. Izen-ematea (1.000 pezetako depositoa) Antxonin edo Intxortan.

## Z I N E A

### KARTELDEGIA

#### BERGARA. Novedades

##### La amenaza fantasma

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.  
Astelehena, ik. eguna: 19:30.

##### Pecata minuta

Eguena, zine-kluba: 20:00.

#### ARRASATE. Alai zinema

##### La amenaza fantasma

Eguakitza: 22:00.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.

Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

#### EIBAR. Unzaga

##### Locos en Alabama

Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### EIBAR. Rialto

##### Buho gris

Eguakitza: 22:15.  
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.  
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.

Astelehena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

#### ELORRIO. Arriola

##### La momia

Zapatua: 22:30.  
Domeka: 20:00.  
Astelehena: 20:00.

##### Festen

Eguena, zine-kluba: 20:15.

#### AZKOITIA. Baztartxo

##### Vampiros

Eguakitza: 22:00.  
Zapatua: 22:00.

##### Notting Hill

Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.  
Astelehena: 20:00.

#### OÑATI. Santana

##### Notting Hill

Eguakitza: 22:30.  
Zapatua: 19:30, 22:30.  
Domeka: 22:30.  
Astelehena: 19:30.

### LA AMENAZA FANTASMA

**Zuzendaria:** George Lucas.

**Aktoreak:** Liam Neeson, Ewan McGregor, Natalie Portman.

Sekulako publizitate kanpainak lagunduta, trilogia berri bateko lehen atala iritsi zaigu George Lucasen eskutik. Efektu berezi bikainez josita dagoen filme honetan La gerra de las galaxias-eko pertsonaiak berreskuratzen dira. Komentarioaren Federazioak blokeoa ezarri dio Naboo planeta txikiari eta Galaxiar Errepublikako Nagusiak bi zaldun Jedi bidaliko ditu bertara arazoak konpontzeko asmoz...



### PECATA MINUTA

**Zuzendaria:** Ramon Barea.

**Aktoreak:** Elena Irueta, Ane Gabarain, Loli Astoreka, Aitzpea Goenaga.

Ramon Barea aktoreak zuzendutako komedia hau monjen konbentu batean giroa dago. Espetxerata egongo balira bezala, lau monjak ihesari ekingo diote konfesionario azpiko kriptan tunela eginez. Aurretik, konbentu barruko monjen artean dauden liskarrei aurre egin beharko die... Euskal aktorea ezagune-ekin barre egiteko aukera.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

- Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz.
- Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!  
Zatoz eta informa zaitetz!

**ARRAÑAGA**  
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63





# Ekitaldiz jositako San Martin jendetsuei agur

**A**spaldian ezagutu diren San Martin jairik ederrenak izan dira aurtengoak. Ekitaldiz josiak eta jendetsuak. San Martin egunaz eta bezperakoaz gain, aurreko eta osteko astebukaeretan ere izan dira jaiak aurten.

Aurtengo San Martinetako **danborradetako protagonista nagusia Luis Larrañaga "Kikio"** izan da. Urteetan sukaldari baldarren nagusia, "maitrea", izan denak, ezin izan du parte hartu danborradan, gaixotasun larri bat dela medio, baina gogoan izan dute bertan parte hartu dutenek, aurtengo karrozan bere irudia ipini baitute danbolin erraldoietan, sukaldari zortzikotearen ondoan.

Espero bezala, ikusmin handia sortu zuten San Martin plazan eta Seminarioko patioan

ipinitako **barazki, lora, fruita eta gazten postuek**. Eurria egin zezakeela eta, toldopean jarri zituzten postuok, baina azkenean eguzkia izan zen nagusi eta gauera arte ez zuen euri tantarik ere egin.

Sarrituei dagokienez, barazkien sailean Antzuolako Lapatza baserriko Tomas Larrañagak eroan zuen lehen saria. Bigarrena, Martuteneko Jose Manuel Zabalegik, eta, hirugarrena, Bergarako Errementeri baserriko Mercedes Urienek. Fruitetan, berriz, Gatikako Jose Etxebarria izan zen garaile. Antzuolako Bidaurre baserriko Kontxi Izagirrek eta Gatikako

Sonia Isasik jaso zituzten bigarren eta hirugarren sariak.

Etxean hazitako loretan, Fidedela Gabilondo eta Irene Zenitagoia bergararentzat izan ziren lehen bi sariak. Azkenik, gazten lehiaketan, Elorregiko Aierdi baserriko Juan J. Mur-

giondo izan zen irabazle; bigarren eta hirugarren sariak Oriñeira joan ziren: Nikolas Segurak bigarrena eta Jose Mari Lizarralde hirugarrena.

Zapatu eguerdian banatu ziren **odolosteek**, Bedelkarreko harakinek emandakoak, oso harrera ona izan zuten: berehala gastatu ziren. Feria egunean burduntzian erretako Arane Goikoa baserriko 231 kiloko **txahalaren okela**, eta gainerrako janariak dastatu ahal izan zituzten herri afarian. Seminarioko zutabe-patioa bete egin zen Bedelkarreko harakinek prestatutako **afari ederraz** gozatzeko. Gero, La Parrandarekin gerriari astinduak emateko aukera izan zen Fraiskozurin. Ordu batzuk lehenago, iluntze partean, manifestazioa egin zen **Gazte Lokalaren alde**.





# Presoen aldeko hainbat ekimen egin dira azken egunotan Bergaran

## Bergarara Plataformak salatu egin du Barne ministerioaren jokaera

**Udako oporren ostean, herriz ere biltzen hasi dira Bergarara Plataformako kideak. Bilerak astelehenero egiten dituzte, 20:00etan, Pol-Polen eta herriko edozeinek har dezake parte.**

Oro har, Bergarako presoen eta, bereziki, zigorren hiru laurdenak beteak dituzten Jose Mari Etxaniz eta Eukene Graciaren egoera salatu eta irtenbideak topatzeko hainbat ekimen bultzatzen dituzte.

Euskal preso politikoak kartzeletatik mugitzeko Espainiako gobernuak hartutako erabakia izan dute mintzagai oporren osteko bileran eta balorazioa ere egin dute: "Espainiako gobernuak mugimendu txiki bat baino ez du egin. Hori ez da presoak gerturatzea, alde batetik bestera mugitzea baizik, banaka batzuk gerturatuta dituzten arren. Mayor Orejaren aurpegi garbiketa saiakera izan da, lotsagabekeria hutsa" esan diote BERRIGARARI Imanol Bolinaga, Migel Mendibil eta Fernando Lasa Plataformako kideek. Euren ustez, ordua da preso guztiak Euskal Herriratzeko edo, behintzat, euren etxetara hurbiltzeko, "azken finean, denak baitira pertsonak, presoak eta euskaldunak" dioskue. Gainera, diotenez, ez dituzte preso guztiak hurbildu, "batzuk urrundu egin dituzte".



Joan zen eguakitzean egin zen kontzentrazioa. Behean, Bergarara Plataformakoak.

Plataformakoek diotenez, Espainiako gobernuak plangintza bat egin beharko luke, alderdi politikoeekin eta giza taldeekin batera, presoak Euskal Herrira inguratzeko. Bestalde, "presoak etxe ingurura ekartzeaz gain, euren egoera hobetu egin beharko lukete eta, dagoeneko, kalean egon beharko lirotekeenak askatu".

### ISOLAMENDU EGOERAN

Jose Mari Etxaniz Puerto de Santa Mariatik Topasera (Salamanca) eroan dute eta eguaztanean, berri hau idatziz zen egunean, isolamendu egoeran zegoen. Luis Etxeberria Martutenera eka-

rri dute; bera ere isolamendu egoeran zegoen. Iñaki Arietaleanizbeaskoaren berririk ez zeukaten Amnistia-  
ren Aldeko Batzordeetako kideek, Ourensetik Martutenera ekarria izatekoa zela jakin arren.

Etxanizek 20 urte egingo ditu kartzelan datorren urtarrian. "Eskubide estatu batean bizi garen ala ez zailtzan jartzen dugu, guztiendako ez baita justizia berdin aplikatzen. Gaur egun, gobernu espainiarrak euskal presoak bahituak balira bezala erabiltzen ditu" dioskue Plataformakoek.

Bergarara Plataformak, hainbat ekimen bultzatu ditu: manifestazioak, firma bilketak, kontzentrazioak kartzela aurretan, mozioak, bilerak... Bestalde, hainbat txosten egin dituzte eta Etxanizen kasua, esaterako, Auzitegi Konstituzionalan dago orain.



### KONTENTRAZIOA UDALETXE AURREAN

Presoak jasaten duten egoerarengatik protestatzeko eta presoen erabilpen politikoa egiten dutenen jokabidea salatzen, Gipuzkoako Ahdun-Kontseiluak joan zen eguakitzerako egindako instituzio-deiak erantzuna izan zuen Bergaran.

Bergarako Udaleko ELA, LAB eta ESK sindikatuek deiarekin bat egin zuten, eta "Euskal presoak Euskal Herrira" pankartatxoekin inguruan 40 bat lagun bildu ziren eguerdiko 12etan Udaletxe aurrean, tartean Udaleko langileak eta zinegotziak. Horretaz gain, idatzi bat banatu zuten. "Espainiar eta frantziar estatuetak gobernuari dei argia egiten diegu azken urteotan euskal gizartearen gehiengoak "Euskal presoak Euskal Herrira" lelopean egin duen aldarrikapenaren aldeko herri-oihuaz jabetu daitezen" irakur zitekeen esku-orrian.



# Gobernu akordioa sinatu dute EAJk, EHk eta EAK

## Udalbiltzan "parte hartze aktiboena" ziurtatuko da



EAJ, EH eta EAKo ordezkariak, eguaztenean Udaletxean egin zen gobernu akordioaren sinatze ekitaldian.

**Legealdi berrirako uztai-lean adostutako gobernu ituna sinatu zuten eguaztenean, Udaletxean, EAJ, EH eta EAKo ordezkariak. Adostutako puntuak zehaztu zituzten eta zein puntutan ez duten akordiorik lortu azaldu zuten.**

Ezadostasunak alde batera lagata, datozen lau urteotan elkarrekin gobernatzeko egindako ahalegina azpimarratu zuten.

Lau urteotarako gobernu programa zortzi arlo nagusitan banatu dute EAJk, EHk eta EAK: gestioa, hiri-gintza-ingurugiroa, gobernazioa, gizarte ongizatea, hezkuntza-euskara, kultura-gazteria, auzoak eta kirolak. Beste bost gaitan ez dira bat etorri eta horiek ere gobernu akordioan jaso dituzte. Honakoak dira: lan orduen murrizketa, udal zerbitzuen pribatizazioa, azpiegiturak (Eibar-Gasteiz, Abiadura Handiko Trena eta haize-

errotak), uraren gestioa eta udalerrri intsumituen elkarrearen kontua (Eudima). Halere, gai hauek aztertze-ko momentuan, zelabaiteko adostasunera heltzeko aha-lerinak egingo dituztela adierazi zuen Victoriano Gallastegi alkateak.

### EGOERA POLITIKO BERRIA

"Euskal Herriak bizi dituen momentu itxaropentsu hauetan denon partehartzea ezinbestekoa da zabaldua-ko prozesu politikoak au-

rerra egin dezan. Alde horretatik, Bergarako Udalean lanean aritzeko gaude-nok ere, ildo horretan akti-boki jardun beharra dauka-gu, horixe da-eta bergara-rren nahia" esan zuen Victo-riano Gallastegi alkateak gobernu akordioaren sinatze ekitaldian. Horretaz gain, Lizarra-Garaziko Akor-dioan jasotako mezuari eutsi, eta herritarren artean zabaltzeko borondatea azaldu zuen eta Euskal Herriko Udal Ordezkarien Biltzarrean Bergarako Udalaren "partehartze aktiboena" ziurtatuko dutela esan zuen, "bai aportazioak egiterakoan, bai bertan egindako proposamenak aurrera ero-aterakoan".

Jesus Mari Garitano EHko bozeramaleak, bestalde, azken urte honetan Euskal Herrian politika arloan gertatu diren aldaketak ekarri zituen gogora, eta kontestu horretan sartu zuen Bergarako Udalean adostutako gobernu akordioa. "Hiru taldeon artean ezadostasun handiak egon litezke, baina beste arlo askotan adostasunera iritsi gara eta neurri horretan elkarrekin lan egiteko itxaropentsu gaude, herriak horixe eskatzen duela uste dugu eta".

### GOBERNU AKORDIOA ARLOZ-ARLO

Arloz arlo, hauek dira gobernu akordioan jaso diren puntu nagusiak: gestioari dagokionez, ohiko udal osoko bilkurak hilean behin

**etxalar**  
kafetegia  
kruasantegia

Boni Laskurain 4  
943 76 50 68

**AZPEITXI**

**Jatetxea**

Aranerrek 13 behea ☎ 943 76 55 00

**Maxim's**

☎ 943 76 20 61



egitea; Ingurugiro batzordea sortzea eta gai garrantzitsuak erabaki behar direnean erreferendumaren aukera erabiltzea.

Hirigintza-ingurugiro arloan, Irala kalearen eta herriaren erdialdeko beste hainbat kaleren urbanizazioa eta Xabier Maria Muni-be plaza egitea; herriko parke eta berdeguneen plangintza orokorra egitea; Beasain-Durango korredorea lehenbailehen egiteko eskatzea; Arrizuriaga parkean auditoriuma egiteko ideia lehiaketa antolatzea; komertzio txikia bultzatzea, eta aparkalekuen inguruko arazoa dela eta, sentsibilizazio kanpainak egitea. Etxebizitza arloan, bestalde, etxebizitza alokatuak bultzatzeko kontzientziazio programak egitea.

Gobernazio arloan, Udalak zerbitzuak kontratatze-ko orduan lan baldintza

kaxkarrak baztertzeko neurriak hartzea eta Udalaren lokalen egoeraren azterketa egitea. Gizarte-Ongizateari dagokionez, Bergarako preso-en egoerari buruzko jarraipenaz pertsona bat arduratzea eta bikote ezkongabeen eskubideak errespetatzeko konpromisoa hartzea. Hezkuntza eta euskarari dagokionez, ikastetxeen arteko harremanak bultzatu, UNED Bergaran indartu eta mantentzeko konpromisoa hartu eta Bergaran herri telebista bultzatzea. Kultura eta gazteriari dagokionez, gazteek aurkeztutako proiektua aztertu eta gaiari irtenbidea ematea.

Auzoetako beharrei erantzuteko, legealdirako plangintza eratu eta auzoalkateen izendapena auzo bakoitzak egitea. Kirolean, azkenik, azpiegiturei buruzko ikerketa zehatza egitea, lehenbaitasunak markatzeko.

**Otseine**



### MAYC-EKO LANGILEAK GREBAN

**Mayc-eko langileak** grebari ekin zioten atzo, eguena, soldata igoerak eta lan baldintza hobekaldirik. Atzo hasi eta hurrengo hiru eguetan egingo dituzte geldialdiak eta protesta ekitaldiak. Atzo goizean lantegiaren aurrean langileek egin zuten kontzentrazioan sindikatu eta ordezkariek azaldu zuten, martxoan sinatu zen Gipuzkoako metaleko konbentzioa. Hala ere, Mayc-eko langileen eta zuzendaritzaren arteko enpresa ituna, 1999 eta 2000. urteetako, sinatzeke dago oraindik. Langileen esanetan, 1992. urtetik, Candy italiarrak Mayc erosi zuenetik, langileen lan baldintzek okerrera egin dute. Aste honetan egindako langileen batzarrean 171 lagun azaldu dira greba egitearen alde eta 87 kontra; horrez gain, 4 abstentzio eta 11 boto zuri izan dira.

## 99-00 IKASTURTEA

**INGELES  
FRANTSESA  
ALEMANA**

**MATRIKULA ZABALIK**

## Ikasturtearen hasiera: urriaren 4an.

- Talde txikiak.
- Maila guztiak.
- Adin guztiak: gazte, heldu eta...
- **UMEENTZAKO HASIERA IKASTAROAK (6 URTETIK AURRERA).**
- Azterketa ofizialen prestakuntza.
- Hiru hilabeteko ikastaro trinkoak.
- Goizez, eguerdiz eta arratsaldez.



INFORMAZIOA: Bergarako UNED. San Martin plaza z/g (3. pisua) ☎ 943 76 06 87. Bulego ordutegia: 10:30-13:00 eta 16:30-19:30



# Berrigara

380 zenbakia.  
1999ko irailaren 24a.

**Errotalde Jauregia, 20570 Bergara**  
Telefona: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

**Zuzendaria:**  
Eneko Azkarate.  
**Erredakzioa:**  
Eneko Azkarate, Edu Mendibil.  
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.  
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.  
**Harpidetza:** Itziar Kortabarría.  
**Testuen zuzenketa:**  
Estepan Plazaola, Alex Labaien,  
Mariipi Laskurain.  
**Erredakzio kontseilua:**  
Miguel Angel Elkorobereziabar,  
Alex Labaien, Gorka Elortza.  
**Komikiak:** Bittor Rodriguez,  
Gorka Ortega & Jon Alvarez,  
Alex Ugalde, Unai Azkarate.  
**Kolaboratzaileak:**  
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina,  
Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.  
**Banaketa:** Txanixangorri taldea.  
**Inprimategia:**  
Gertu Koop. Elk. (Zubiñaga, Oñati).

Azala: Iñigo Igarza/Berrigara.

Tirada: 5.200 ale.  
Copyright: BERRIGARA.  
Lege gordailua: SS 50/91.  
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta  
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Berrigarako  
Udala



Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia



Eusko  
Jauriaritzako  
Kultura saila

## gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara.  
Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigara@topagunea.com. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

### EUSKAL PRESOK ETXERA

Bada dagoeneko urtebe-  
te pasa ETA erakunde arma-  
tuak su etena iragarri zue-  
netik, baina gobernu espa-  
niarra eta frantzesaren jarre-  
rak ez dira aldatu; aldiz, es-  
petxeetako egoerak gero  
eta larriagoak dira.

Azken kasua gobernu  
espainiarrak aurrera eraman  
duen sasi-hurbilketa izan  
da. Oraingoan 105 euskal  
preso politiko mugitu dituz-  
te, horietatik 27 Euskal He-  
rrira (16 kalean egon behar  
lirateke dagoeneko).

Beste 78 presoan ka-  
suan, berriz, (37 kalean  
egon behar lirateke) hurbil-  
keta bat baino gehiago bes-  
te trasladu bat izan da.  
Hauetatik 13 urrundu egin  
dituzte. 3 bikote banandu  
egin dituzte. Guzti hauekin  
beraien senideen urdurita-  
suna gehitu egiten da, tras-  
ladoak 3 asterainokoak izan  
litezke, beraien egoera eta  
nondik norakoa jakiteke.



Oraindik Espainiako es-  
petxeetan 352 euskal preso  
politikok sakabanaturik ja-  
rraitzen dute eta Espainiako  
espetxeetatik at badira bes-  
te 74 euskal preso politiko  
arazo politiko honen erre-  
presioa pairatzen dutenak.  
Frantzian, 71 (24 espetxe-  
tan sakabanaturik, inoiz  
eman den kopuru haundie-  
na); Miamin, 1; Mexikon, 1,  
eta Alemanian, beste bat.

Guzti honen ondorioa,  
Euskal gizartearen eskaerari  
muzin eta barre egitea da,  
argi baitago PP eta PSOE-  
ren jarrera inmobilita alda-  
tzeko, euskal gizartearen  
presioa gehitu egin behar  
dela. Honela bakarrik lortu  
baikenezake euskal preso  
politikoen bizi baldintzak  
hobetzea.

PP, PSOE, errespetu eus-  
kal gizartearen hitza!  
Euskal presoak etxera!

*Bergarako amnistiaren  
aldeko Komitea*

## tira biraka: gorka ortega & jon alvarez





■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

## Madrilleko Gobernuak pentsiñoak igotzeko hartutako erabakixai buruz zer iritzi daukazu?



**Alicia Marcos**

Ondo pentsatzen jat aurrekontuetako dirua pentsiñodunei gehixago emateko gastatzia. Hala be, hobeto egongo litzake, gehixago igo balebe.



**Jose Maria Diaz**

Kaka bat igo dabe, hori eta ezer be, berdin. Gaiñera, neri ez dost ixa eragiten, gutxi jasotzen dabenei bakarrik igo dotse eta. Gehixago igo biharko leukie.



**Soledad Arrieta**

Nik gustora hartuko neuke pixkat gehixago. Berrogeita piku urtian lan egin dot eta, hala be, gutxi jasotzen dot. Bizitzeko lain ez, behintzat.



**Jesus Jimenez**

Pentsiñuak igotzia ondo dago, baiña ez da nahikua biharra daukeneztat. Gaiñera, hauteskundien atarixan igotzia...



**Martina Larrañaga**

Huskerixa bat jaso dittue, hainbeste berriketa ibili ondoren. Ixilik egon izan balira... Uste neban sekulara igoeria egongo zala.



**Jose Alonso**

Gutxi igo dittue, pentsiño batzuk oso txikixak die-eta. Askoz be gehixago igo biharko leuzkia, jasotzen dabena bikoiztu, adibidez.



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97. Identifikazioa beharrezkoa.

### TOKIA EZ DA GARRANTZITSUENA

**Karlos Larrañagak** deitu digu aste honetan. joan zen alean Jesus Garcia idatzitako gutunari erantzuteko. Jesus Garcia zalantzan jartzen zuen San Martin plazaren egokitasuna dantzaldiak edota bestelako musika emanaldiak antolatzeke, bertan tabernarik ez dagoelako eta jendea, normalean, tabernarik taberna ibiltzen delako. Carlos Larrañagaren ustez, ekitaldi batzuetara hain jende gutxi hurbiltzearen arrazoia ez da tokia, baizik eta nork eta zer orduetan jotzen duen. Adibide bezala, joan zen eguakitzean, gauerditik aurrera, San Martin plazan izan zen Factoria 77 eta Kaos Etilico taldeen rock kontzertu jendetsua jarri du.

#### Irakasleak:

Panderoa: Aitziber Gezalaga  
Soiua: Xabier Solano  
eta Aitor Saizar

**Noiz:**  
urritik ekainera

**Non:**  
Kartzela zaharrean

## Trikiti eskola



#### Egunak:

Panderoa: Astelehen eta eguakitzetan,  
16etatik 21etara  
Soiua: astelehen eta eguaztenetan, 17etatik 21etara;  
zapatuetan, 9etatik 14etara

#### Prezioa:

Panderoa: 1.900 PTA hilean  
Soiua: 2.650 PTA hilean

**Izena emateko azken eguna:**  
irailaren 27a



## Eskulan ikastaroa

#### Noiz:

urriaren 18tik  
maiatzera arte

#### Non:

Kartzela Zaharrean  
**Ordutegia:**  
15:30etatik 17:00etara

#### Prezioa:

3.500 PTA Jarduneko  
bazkideek;

4.000 gainontzekoek

#### Matrikula epea:

urriaren 15a.

#### Informazioa:

Jardun elkartearen (Kartzela zaharra)  
943 76 08 19 / 943 76 36 61





■ adituen esanetan

## Testamentua

**B**eti pentsatu izan da testamentua egitea pertsona edadetuen gauza dela, baina ez da horrela. Edozein adin izanda ere, komenigarria izaten da ondasunak lortzean testamentua egitea. Horrela, behin baino gehiagotan senideen artean gertatu izan diren liskarrak saihestuko ditugu.

Gainera, testamentua nahi denean aldatzeko aukera dago, lehenbizi egiten duguna ez da behin betikoa izaten (egindako azkena da benetan balio duena). Testamentuaren bitartez, gure borondatea azaltzen dugu; esaten dugu gure ondasunak zela banatu nahi ditugun edo norengana bidali nahi ditugun. Hala eta guztiz ere, ezin dugu guk nahi duguna egin. Seme-alabak izanez gero, gure ondasunen 2/3ak seme-alabentzat izango dira nahitaez, legeak hori esaten du eta. Gainerako 1/3arekin izango dugu nahi duguna egiteko aukera: gobernuz kanpoko erakunde bati eman, animalien babeserako elkarre bati edo nahi dena.



AMAIA ZABALETA

Abokatua

*"Testamentua nahi beste bider aldatzeko aukera daukagu eta egindako azkena da benetan balio duena"*

Testamentua aldatzeko notariara joan besterik ez da egin behar. Egunetik egunera aldatzen joan daiteke testamentua. Ez da ondasunen zerrenda bat egitea, baizik eta norbera egongo ez denerako ondasunak norenzatzat izatea nahi dugun zehaztea. Hil ondoren interesatuari emango zaio testamentuan agindutakoa. Madrilen Registro de Actos de Ultimas Voluntades delakoa dago eta hara jozen da egindako azken testamentuaren berri jakiteko.

Testamenturik ez dagoenean, beraren ordezkoa egin behar da, batzuetan notarian eta bestetan epaitegian. Hildakoaren oinordekoak zeintzuk diren deklaratu behar da ordezkoko honetan eta modu garestiagoa da hau. Testamentua egitea, asko jota, 10.000 pezeta kostatzen bada; ordezkoa askoz garestiagoa da (40.000 pezetatik gora normalean). Gero eta gazte gehiago dira testamentua egiten dutenak, eta ondasunen bat tarte dagoenean hobe izaten da egitea, prozedimendu oso erraza da eta.<



Testamentuan gure azken borondatea azaltzen dugu, ondasunak zela banatu zehaztuz. ARTXIBOA

■ bergarako gordailutik

## BERTSOLARITZA ETA JUAN MONDAGON

Imanol Sorondo

**M**unduan zehar bertsolaritza oso antzinakoa dela zalantzarik ez dago. Ezagunenetako liburuetan eta herrietan azaltzen da: Biblian, Dabid eta profeten garaian, adibidez, eta Grezian eta Erroman ere bai. Geroztik, eta gizakia mundu zabalera joaten denetik, denok dakigu bertsolariak Afrikan eta Ameriketan ere badaudela. Oraintsu ikusi ditugu telebistan gure arteko bertsolariak Kubako bikote batekin saio berezi eta eder bat eskaintzen. Andaluzian ere bat omen daude. Hori bai, lehenbailehen adierazi behar dugu oso desberdinak direla bertsolaritza motak munduan eta historian zehar. Modu asko sartu omen litezke, eta sartzen omen dira bere barrenean: metrika eta hitzak nola neurtu eta bertsoak nola bukatzen diren, esan, abestu, gaiak, inguruak, barkarka, taldeka, antzetzten, eta abar.

**B**ergaran badaude izen handiko bertsolariak, baina esandakoak kontuan harturik, badaukagu bat oso zaharra, 1509. urtekoa. San Pedroko elizan bazegoen Erroke eta Sebastian Doneen Kofradia, eta 35 mahaikideen artean han azaltzen ziren Jauregitar Migel "bufon" a, eta batez ere, Juan Mondragon "juglar" a.

**B**erez, juglarrak (olerkari edo poetak) alde aurretik pentsatutako bertsoak esan edo kantatzen ditu; bertsolariak, berriz, bapatean burututakoak kantatzen ditu. Baina, hiztegietan "juglar" hitza euskaratu daiteke "koplari" bezala. Bergara moduko herri batean, hain denbora zaharretan, Juan Mondragon ez ote zen izango pixka bat denetik? Olerkari, koplari, bertsolari... Ez zaigu berari buruz pista gehiago ematen.<



## Farolak Bideberrin



Udazkenerako **Bideberriko pasealekua argiztatu** egingo da. Udalak **bost farola** jarriko ditu Bideberrin, errepide aldera dauden jarlekuen ondoan. Azkenaldian pasealekua asfaltatzeaz gain, **jarleku berriak** jarri dira eta datozen asteetan **zakarrontziak** eta aipatutako farolak jarriko dira. Farola bakoitzak **bi beso** izango ditu, bata errepide aldera eta bestea pasealeku aldera egongo direlarik. Udal iturrien arabera, urrirako farolak jartzea espero da.




## Oliver! argazkitan

**Juan Antonio Unzurrunzagak** Oliver! ikuskizunaren inguruan prestatutako argazki erakusketa zapaturarte ikusgai egongo da Kultur Etxean. Orfeoia maiatzaren eskaintako **Oliver!** musikaleko **72 argazki** dira, zuribeltzean zein koloretan ateratakoak eta interesatuek kopiak eskatzeko aukera izango dute. Zapatuan, 12:00etatik 14:00etara izango da zabalik Kultur Etxeko aretoa. Oliver! musikalekin jarraituz, esan datorren **urriaren 16an Gasteizen** antzetzuko dela, bertako antzerki jaialdiaren barruan.



*Gozgintzan  
aintzindari.*

# Kizkur



Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

## TOKI-ONA Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak / Txitxizotzak  
Kazolatxoak / Txabierroak

Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53



# ...zure independentzia.



Asteazkenetan **UNI**  
Unibertsitatea, informatika...

Ostegunetan **ama**  
Gazteentzako gehigarria...


Ostiraletan **Mir**  
Mendi eta abentura zaleentzat...

Larunbatetan **begia**  
Literatura, artea...

Igandeetan **K2**  
Erreportaiak eta elkarrizketak...

Haurrentzako jolasak **Xingola**  
denborapasak...

**Egunkaria**





# kontuola

**KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria:** Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparrairre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 43. zenbakia. 1999ko irailaren 24a.

## Matz-Erreka, 38 urtean hazten

Lan berriekin 8.800 m<sup>2</sup> izango ditu Ibarretako kooperatibak

1961ean eratu zen Matz-Erreka enpresa. Mekanizatutako pieza txikiak egiten hasi ziren garai hartan. Hau da, prentsa barik tornuz egindako era guztietako torlojuak. Gaur egun, 220 lagun ari dira bertan lanean. Produktzioa ere zabaldu egin dute urteekin. Hori dela eta, handitze lanetan ari dira Ibarretan dagoen kooperatiban. Lan hauekin 8.800 m<sup>2</sup> izango ditu enpresak.

**H**ogeita hamazortzi urte dira Matz-Erreka kooperatiba eratu zela herrian. Orduetik, nahiz eta krisialdi garaiak jasan behar izan dituen, kooperatiba hazi egin da eta langile kopuruak ere gora egin du. Gaur egun, 220 lagun ari dira Matz-Errekan lanean. Mikel Agirrezabal zarauztarrak kudeatzen du Matz-Erreka, orain dela bederatzita urtetik. Berak dioenez, "1993an krisiak eragin egin zuen, baina zorionez, indartuta aterata ginen eta 1994tik eboluzioa goranzkoa izan da". Eta horren adibide da gaur egun egiten ari diren pabilioi berria. 1.550 m<sup>2</sup>-ko pabilioia ari dira egiten. Eta eraikuntza berriarekin 8.800 m<sup>2</sup> izatera iritsiko da Matz-Erreka.

### PABILIOI BERRIA

Ateentzako eta pertsianentzako itxitura automatikoak egiten hasi ziren Matz-Errekan 1983an. Orduetik, produktio honek goranzko joera izan du. Hori dela eta, aspaldian, leku falta nabarmena zen. Gauzak horrela, eraikin berri bat egitea erabaki dute Matz-Errekako arduradunek. "Egoera onak handitze lana hastea ekarri digu" azaldu zigun Mikel Agirrezabalek. "Espainian, gaur egun, le-



Honela geratuko da Matz-Errekako eraikin berria.

henengoak izango gara arlo honetan, fabrikazioari dagokionez. Azkenengo 5-6 urteetan hazkunde nabarmena izan du. Azken bost urteetan salmentak hirukoiztu egin dira. Gauzak horrela, 1.100 milioitara helduko dira aurten. Langileei dagokienez, orain dela 7 urte 15 lagun ari baziren, gaur egun 50 bat dira honetan lanean. Honek denak, leku gabezia agerian lagatzea ekarri du eta eraikin berria egitea erabaki genuen". Pabilioi berria datorren urteko lehen hilabeteetarako amaitua izatea espero dute.

Pabilioi berriak bi solairu izango ditu. Batean, muntaia eta biltegia egongo dira. Bigarrean, elektronikak eta bulegoak. Gainera lehen itxitura automatizatuak egiteko erabiltzen zen lekua torlojuen tokiari gehituko zaio. "Honela, tokiari haize gehiago emango diogu. Izan ere, negozio hau azkenengo sei urteetan hirukoiztu egin da".

### BESTE PRODUKZIO ARLOAK

Mekanizatutako itxiturez gain, Matz-Errekan hainbat lekutan aurkitu daitezkeen

2000. urteko lehen hilabeteetarako pabilioi berria martxan jartzea espero dute





1.500 m<sup>2</sup> izango ditu pabilioi berriak.

■ ■ ■  
 “2001. urtera bitartean beste  
 50 lanpostu eratzeko konpromisoa daukagu”

MIKEL AGIRREZABAL



torlojuak egiten dira. Industrietarako autoen, energia eolikoaren, eraikuntzaren, trenen, garabien eta meategien merkaturara zuzentzen dira Matz-Errekan egindako torlojuak. Adibide batzuk jarzteagatik, Anoetako futbol zelaiaren estalkiko torlojuak Matz-Errekan eginak daude, bai eta energia eolikoan erabiltzen diren airesorgailuetako hegalak lotzeko erabiltzen direnak ere.

Matz-Errekako beste produkzio arloa plastikoak dira. Negozio arlo honetan 1968an hasi ziren eta bere bilakera goranzkoa izan da urteetan. Hauxe da jende gehien lanean ari den sektorea. 90 kide ari dira, hain zuzen ere. Nahiz eta bere garaian beste produktu mota batzuekin hasi, gaur egun etxetresna elektrikoak eta autoentzako plastikoak

egiten dituzte. Euren piezak, osagaiak dira. Hau da, beste fabrikatzaile batzuek produktuak osatzeko beharrezkoak diren plastikozko piezak dira. Garbigailu, hozkailu edo bestelakoendako. Exijentziaz handiko merkatuetan sartu da Matz-Erreka azken urteetan. Bai kalitate bai eta beste arloetan ere kudeaketa sistema aurrerakoiak ezarri ditu.

**ETORKIZUNARI BEGIRA**

Matz-Erreka, etorkizunari begirako plangintza batean ari da: “Ekimen” izeneko programa. Eusko Jaurlaritzak bultzatutako proiektu honi esker, langile gehiago kontratatzea bultzatu nahi da.

Mikel Agirrezabalek azaldu digunez, “azkenengo urte honetan hogeitaz gora hasi dira lanean, eta 2001. urtera bitartean, beste 50 langile kontratatzeko konpromisoa hartu dugu. Gure langileak nahiko gazteak dira. Batez beste, 36 urte dituzte langileek eta hori ere etorkizunari begira garrantzitsua da. Gure helburua ahalik eta kontratu gehienak behinbetikoak izatea da. Hasieran behinbetikoak dira, noski, baina langileak erakusten baldin badu, bazkide izateko aukera luzatzen diogu. Gaur egun, %65 inguru bazkide da Matz-Errekan. Bestalde, “Ekimen” programan aurkeztutako planaren arabera, 1.100 milioitako inbertsioak egiteko asmoa du Matz-Errekak”.

**EUSKARA PLANGINTZA**

Herriko beste hainbat enpresa bezala, Matz-Erreka euskaratze plan batean murgilduta dago. Aurten ekin diote planari eta Mikel Agirrezabalen esanetan, “hiru urterako plangintza honekin euskararen erabilera normalizatu nahi da enpresa barruko komunikazioan. Jakin badakigu gure langileetako askok ez duela euskara behar bezala ezagutzen. Euskaraz berba egiten dugunon artean ere irakurtzeko eta idazteko zailtasunak ditugu. Hori dela eta, euskararen erabilera kaskarra da momentu honetan. Plangintza honi esker, hiru urte barru egoera hau hobea izango dela espero dugu”.

**HAZKUNDE DATUAK**

|                                   | 1990  | 1994  | 1999  |
|-----------------------------------|-------|-------|-------|
| <b>Salmentak</b> (milioi PTAn)    | 1.000 | 1.400 | 3.500 |
| <b>Langileak</b>                  | 99    | 116   | 220   |
| <b>Lurzorua</b> (m <sup>2</sup> ) | 4.000 | 4.000 | 8.800 |



Zurrategi plaza 4, behea ANTZUOLA Tf. eta faxa 943 78 71 80

Sukalderako eta  
 bainurako altzariak  
 Altzari rustikoetan  
 espezializatuak

**GOROSTI**  
**Taberna**

☎ 943 76 62 96  
 Zurrategi plaza ANTZUOLA



## Euskal presoen eskubideen alde

**Euskal Presoen** eskubideen alde Antzuolan ere kontzentrazio isila egin zen joan zen eguakitzean. Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako deia jarraitu zioten alderdi abertzaleetako udal ordezkariak.

Joan zen zapatuan, bestalde, Antzuola-ko udaletxeko 8 ordezkari izan ziren Bilbon egin zen udal hautetsien biltzarrean. Udalbiltzaren osaketa onartu zuten EAJ, EA eta EHko hautetsiek.



## ARGAZKI LEHIAKETA

Urriaren 22a arte luzatu dute V. Argazki Lehiaketa. Udalak antolatu duen lehiaketan parte hartzeko edozein gai aukeratu daiteke. Lanak, berriz, 30x40 zentimetroko euskarri batekin aurkeztu behar dira. Koloretan edo zuri-beltzean izan daitezke, norberaren aukeran. Irabazleak 25.000 PTA lortuko ditu eta bigarren sarituak, berriz, 15.000 PTA. Gogoratu bina sari daudela, mailaren arabera: 25 urtetik beherakoendako bata eta 25 urtetik gorakoendako bestea. Jakin dugunez, gainera, aurkezten diren argazki guztiekin erakusketa bat egingo da urriko azken aurreko astebukaeran.

Gogoratu, beraz, urriaren 22a arte eraman ahal izango direla lehiaketarako lanak udaletxera.

## PILOTA TXAPELKETA

Eskuz binakako herri mailako pilota txapelketa antolatu du Olalde Elkarteak. Hamabost urtetik gorako pilotazaleei zuzenduta dago eta bi mailatan jokatu da, iaz bezala. Izena emateko azken eguna irailaren 27a izango da, astelehen. Horretarako, Juan Tomas Erosteği, Jose Mari Galeano, Juan Simon Aristi edo Balendin Zabalorengana jo daiteke. Izen ematea 1.000 PTA kostako da bikote bakoitzeko. Antolatzaileek aditzera eman dutenez, "txapelketa pilota goxoarekin jokatu da".

## SAN MARTINETAKO AZOKA

**Lapatz** lehenengo eta **Bidaurre** bigarren. Horixe izan zen joan zen asteko San Martinetako azokako emaitza. Tomas Larrañagak barazkien lehen saria eskuratu zuen. Kontxi Izagirrek, fruituen bigarrena. Jende ugari elkartu zen Bergarako azokan, eta antzuolarrek maila ona erakutsi zuten berriz ere.



## MENDI IRTEERA

Arrola Mendizale Elkarteak Picos de Europa irteera antolatu du. Urriko zubian izango da, urriaren 9 eta 10ean. Sotres herrian hartu dute etxea. Informazio gehiago nahi izanez gero, Arrolara jo.

## FUTBOLA ESTALAN

Antzuolako Futbol Taldeak zapatuan ekingo dio aurtengo denboraldiari. Andoni Azkargortak zuzentzen duen taldeak 16:30etan ekingo dio partiduari, Zarautzeko Antoniano taldearen aurka. Zarautzarrak iaz jaitsi ziren bigarren errejionalera.

**LARREA**

**TABERNA**

Kalebarren 17  
ANTZUOLA



Kalebarren 7, ANTZUOLA Tf. 943 78 71 12

**Euskal  
sukaldaritza**

**Eguneko  
menua**

**Igor eta Txomin C.B.**

**Margoak  
orokorrean**

ANTZUOLA 609 157 131  
BERGARA 609 150 164



Jone Larrañaga, Maripi Laskurain eta Lierni Legorburu

# Antzuolako euskeriari eutsi nahixan

Idolazek egitasmo berri bati ekin dio. Antzuolako euskarari eusteko asmotan Berbaola saila sartu zen Kontuolaren barruan. Sail honetako elkarrizketak Antzuolako hizkeran nahi izan ditugu, bertakoak idazteko ere balio duela frogatu nahian. Horretan jarraitzeko asmoa badaukagu ere, oraingoan, joko bat proposatzen dizue Idolazek. Kontuola guztietan lehiaketa bat egingo da, euskaraz berbe egiterakoan entzuten diren akatsak konpontzeko asmotan. Egitasmo honi buruz berba egin du Jone Larrañaga, Maripi Laskurain eta Lierni Legorbururekin.



Liburutegira eraman beharko dira zozketarako erantzunak.

## Z e helbururekin antolatuzuzue ekimen hau?

Lehiaketa berri honen helburu nagusixa kalien entzuten diren akatsak zuzentzia da. Hortarako izez argitaratu zan Jone

Larrañagak egindako *Antzuolako hizkera* liburuen edukixa hartu dogu kontuan, hor jasotzen direlako gure hizketiaren ezaugarriak.

## Halako premia nabaritzen duzue?

Bai, geruago eta hankasartze haundixaguak egitten dira, hizkeriaren mailla danetan: esaldixak osatzerakuan forma edo errekurtsoko asko galdu dittugu; erderakadak pe asko sartzen dittugu, berba edo forma asko galtzen goiatzelako. Hizketia bera pobriagua da.

Umiak batez be egundoko astokerixak botatzen dittue: *baleikeda* eta antzerako astokerixa asko.

Gaztien artian be akordautu gare hika berba egittia asko gustatzen jakue-la, baiña eztabe bereizten zeinekin egin bihar daben, danekin egitten dabelako: lagunekin, gurasuekin edo aittajun- amandriekin. Eta gaiñera, bakarrik mutillena ikisi dabe, neskei be mutillena egitten jaue eta.

## Lehenago Idolazek antolatuzuzue horrelakoak

Bai, akatsak zuzentzeko kaleko oharra eta lehiaketa. Bestelakuak ere bai: Antzuolako hika lantzeko ikastaruak, Antzuolako euskeran idazten ohi-tzeko ikastaruak...

Halakuekin nahi doguna da jendiari akordau eragittia euskeraz egittia ez-tala nahikua, Antzuolako euskeriari eustia gure esku dagoela eta horretan ahalegi-ña danok egin bihar dogula.

## Zela egingo duzue lehiaketa?

Hamabostian behin galderak egingo dittugu *Kontuolan*. Erantzun zuzener artian 5.000 PTA zozketatuko dogu. Gaiñera, aldiko *Antzuolako hizkera* liburuen 3 ale banatuko dittugu. Erantzunak liburutegira eruan bihar die alia kaleratu eta hurrengo eguakitza baiño lehen. ■

■ ■ ■  
 “Geruago eta hankasartze haundixaguak egitten dira, hizkeran”  
 ■ ■ ■



IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Birgaitzeak • Fatxadak  
 Teilatuak • Sukalde eta bainu gelak

Kalegoi 9, 1.a., ANTZUOLA. Tf. 943 76 60 89

**LEKU-BERRI  
 MERENDEROA**

**Janariak eta edariak**

Tf. 943 76 60 94



Jose Gomez  
 Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola  
 943 76 60 19  
 943 76 60 43

**AITZ-GARBI**



taberna  
 jatetxea

**Pintxoak eta kazuelatxoak.  
 Bazkariak eta afariak**

Kalebarren 15. Tf. 943 78 70 57



# .....Berrigara Gida 2000

Berrigara Gida 2000, Bergara eta Antzuolako telefonoen gida prestazen dihardugu.

**Ainhoa Altuna** (argazkian) arituko da komertzial lanetan eta dendari, ostalari, lantegi edota profesionalen telefonoak jasoko ditu.

Aurten ere intereseko telefonoak, komertzioenak eta partikularrenak jasoko ditu urte hasieran kaleratuko dugun Berrigara Gida 2000 liburutxoak:

**Bergara eta Antzuolako ia telefono guztiak.**

lazko Gidan agertu ez bazinen eta aurten agertu nahi baduzu, edota zure telefonoa edo helbidea oker jarri bagenuen, Berrigarara deitzea eskertuko genizuke: **943 76 03 97.**



**Berrigara**



# Kooperanteak, beste modu bateko oporrak

## Herritarren esperientziak Ertamerikan

**Urtero moduan, Komite Internazionalistak taldeak brigadista kanpaina jarri zuen martxan bukatu berri zaigun udari begira. Brigadistek lana eta turismoa tartekatzen dute euren laguntza beharrezkoa den herrialdeetan eta Mexikon eta Nikaraguan ibilitako herritarren esperientziak ezagutu nahi izan ditugu.**

**M**arkos Gabilondo eta Iñigo Igarza Nikaraguako San Francisco Libre herrian izan dira abuztuan. Euskal Herri-ritik 11 lagun joan ziren bertara brigadista lanak egitera. Bertan, Mitch hurakanak eragindako kalteak gertutik ezagutzeko aukera izan zuten Asociacion de Educacion Popular Carlos Fonseca Amador delakoaren eskutik. Elkarte sandinista honek alfabetizazioaren arloan lan egiten du nagusiki. San Francisco Libre herrian 2.000 lagun bizi dira eta inguruko auzoetakoak gehituz gero, 12.000 lagun inguru izango dira zonalde horretan. Managua Lakuaren bazterrean kokatuta dago herria eta gehiengoa arrantzatik eta nekazaritzatik bizi da. Mitch hurakanaren eraginez, ura bost kilometro sartu zen lurretan barrena eta, ondorioz, kalte ikaragarriak izan ziren. Jende asko etxe barik geratu da. Beraz, proiektuetako bat etxe berriak eraikitzea izan da eta Iñigok eta Markosek lan horretan lagundu dute, "nahiz eta eraikuntza lanetan maisuak ez izan".

Hogeita bost egunetan 12 etxe eraiki dituzte bertako bizilagunak eta beste

herrialde batzuetako brigadistekin batera. Bestalde, inguru horretako komunitateak bisitatu dituzte. Nikaraguako zonarrik beroenetakoa izanik, 45°C-ko tenperaturak jasan behar izan dituzte.

Orain urte batzuk desforestazio handia egin zen inguru horretan eta duela hiru urte baso-berritzeari ekin zioten, ekosistemari eragindako kalteak zuzendu nahian. Mitch hurakanak baso-berritze hori eten egin zuen. Hori dela eta, Euskal Herriko Komite Internazionalistak bi milioi pezeta eman ditu aurten proiektua aurrera eraman ahal izateko. Era berean, Malpaisillo herrian (Leongo departamentua) etxeak egiteko proiektua zegoen; horretarako, Bergarako Udalak 1,8 milioi pezeta bideratu ditu. Nikaraguako biztanleek primerako harrera egin dietela esan digute eta oporrak sakrifika-tzea baino, brigadista lanetara joatea bertako egoera politikoa eta soziala ezagutzeko modu ezin hobea dela diote.

### EMAKUMEEN DEFENTSA

Mariasun Mujika eta Mila Larrañaga Managua hiriburutik 30 kilometrorra dagoen Masaya herrian izan dira bi hilabetez. Biak ere irakasleak dira eta La colectiva de mujeres de Masaya izeneko taldearekin elkarlanean aritu dira. Talde horrek emakumearen egoera hobetzeko lanetan dihardu. Mariasunen esan digunez, "biztanleen egoera onkorrean txarra bada, emakumeena txarragoa da oraindik". La colectiva taldeak emakume nekazariak alfabetizatu eta beraien bizitza baldintzak hobetzeko helburua dauka. Horretarako, ikuspuntu feminista batetik kontzientziazio lana beharrezkoa da. Aldi berean, emakumeen aurkako biolentzia ohizkoa da Nikaraguan eta egoera hobetu nahirik La colectiva-ko borrokatu behar izan du komisaldiegietan La comisaria de la mujer zerbitzua martxan jartzeko, orain arte emakumei ez baitzieten kasu handirik egiten bio-

**Mitch hurakanak eten egin zuen baso-berritzea Nikaraguan. K. Internazionalistak bi milioi eman ditu baso-berritzearekin jarraitzeko**

**GISASOLA** BURDINAKI DENDA

*"Erratzu"*

San Pedro 8

Tf.: 943 76 27 70

BERGARA



Amillaga, gasolindegia ondoan. Tf.: 943 76 57 34

**ZABALETA  
ERROTULOAK**

Mota guztietako errotuloak  
Fatxadak, eskapateak...



## COLONIA 23 DE AGOSTO

ASOCIACION DE EDUCACION POPULAR CARLOS FONSECA AMADOR



Markos Gabilondo eta Iñigo Igarzarekin batera (behean), Bittor Gallastegi, Iban Aranzabal eta Gaizka Bolinaga elgetarrak (zutik) izan ziren Nikaraguan. Ezkerrean, eraikitako etxeak.

Mariasun Mujika eta Mila Larrañaga (ezkerrean) Masayako hezitzaileekin.



lentzia kasuak salatzen zituztenean. La colectiva laguntza legala eta psikologikoa eskaintzen du eta erasotatutako emakumeak ere laguntzen ditu komisaldegiraino salaketa jar dezaten.

Mila eta Mariasunekin batera, Euskal Herriatik joandako beste bi irakasle izan dira bertako hezitzaileekin lanean, dagoeneko alfabetatuta daudenei zuzendutako programa berriak sortzen. Material berri hori Masayako hezitzaileek erabiliko dute aurrerantzean. Mariasunen hitzetan, "ikusuntu feminista batetik asko irakatsi digute han". Alfabetizazio sarean erabiltzeko liburu bat argitaratzeko asmoa dago eta aurrerantzean ere Euskal Herriko irakasleek nikaraguarrekin harremanetan jarraituko dute Interneten bitartez; "beraiek egokitu behar dituzte guk egindako gauzak beraien errealitatera eta euren go-goetara".

### ZAPATISTEKIN

Mikel Elkoroberezibar Mexikon izan da Komiteekin uztailen. Mexiko DF hiriburuan unibertsitateko ikasleen egoera ezagutzeko aukera izan zuen, beste hamar euskaldun brigadistarekin batera. Unibertsitate publikoa pribatua bilakatu nahi dutenez, 200.000 ikasle inguru greban daude apiriletik. Era berean, hiriburuan, auzokide elkarteekin, presoan eskubideen aldeko taldeekin edota Frente Zapatista taldeko Xabier Elorriaga ki-dearekin elkarriketatu ziren. Xabier Elorriagaren arbasoak Lekeitiokoak di-

ra eta bera zapatisten ideologoetako bat da. Hiriburutik Tlaxcala estatura abiatu ziren eta, astebetetz, nekazarien eta hiritarren eskubideen aldeko Cenuc sindikatuarekin aritu ziren elkarlanean. Nekazariak premia handiak dituzte Mexikoko estatutik txikienean.

Azken bi asteak Chiapas inguruan eman zituen Mikelek, zapatisten aldeko komunitateetan. Morelian italiarrak, frantsesak eta estatubatuar kooperanteak ere bazeuden. Proiektu nagusiak saskibaloi pista bat egitea eta berogailuak eta sukaldeak egiteko tailer bat eraikitzea izan ziren. Era berean Kynal Antzetik elkartearen lana jarraitu ahal izan zuten. Emakume indijenen elkarte honek kooperatibak eta heziketa proiektuak bultzatzen ditu. Zonalde horretan tzetal, tohil eta tojolabal hizkuntzak daude eta hiru hizkuntzen defentsa nabaria zen. Mikelek adierazi digunez, "indijenak baldintza minimoetan bizi dira eta, osasun zerbitzu aldetik

esate baterako, erabat diskriminatuta daude, osasun zentruak urruti geratzen zaizkielako. Nazioarteko laguntza beharrezkoa zaie eta oso esperientzia ona izan da hara joatea; harreman pertsonalak asko lantzen dira eta gauza asko ikusi eta ikasi daitezke". <

**Nikaraguan egoera txarra da, baina emakumeena txarragoa. Emakume nekazariak alfabetatu eta euren bizitza baldintzak hobetzea da helburua**

# Dixula

## BOKATAK DAUZKAGU

Barrenkalea 32  
Tf. 943 76 44 95

# LONBIDE OINETAKOAK

Bidekurutzeta 5

BERGARA

☎ 943 76 10 57



Irala 3  
Telefonoa:  
943 76 48 26



**IRRINTZI**  
k a f e t e g i a



# B e r g a r a k o OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 607 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 43 29, mobila: 609 77 17 32 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaiari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 608 77 17 32
- **IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 608 87 68 47 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE**
- **MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLOZABAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 80
- **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B.** 943 76 38 54 • **IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-A. 943 76 01 65 • **IRIZAR Juan Mari.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOA: LOPEZ DE MUNAIN Francisco.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren** (Reeducacion Postural Global). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 70
- **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 74 • **AZPEITIA Irune.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 73 43 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 70
- **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBER**
- **Edurne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32 ■ **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64 ■ **PSIKOLOGOAK: PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76



# Labegaraietako futbito txapelketa asteburuan hasiko da

## Lau multzotan banatutako 40 talde izango dira lehian

**Astebukaera** honetan emango zaio hasiera Labegaraietako futbito txapelketari. Aurtengoa txapelketa-aren 14. edizioa izango da eta lau multzotan banatutako 40 talde izango dira lehian. Partaidetzak behera egin du joan zen edizioarekiko: orduan, 46 taldek hartu zuten parte Lagunak elkarteak antolatutako txapelketan.

Joan zen astean egin zen zozketa, eta ez zen taldeen arteko inolako bereizketarik egin multzoak eratzeko orduan. Lau multzoetan bi itzuli jokatu dira, joane-koa eta itzulerakoa, eta multzo bakoitzeko 4 talderik onenek txapelduna erabakitzeke play-offak jokatzeke txartela lortuko dute. Gainerakoko taldeek Kopa

txapelketari ekingo diote Liga amaitu bezain laister. Azken txapelketan Errotagain eta Canalejas taldeak izan genituen Liga eta Kopako txapeldunak. Canalejasek Superkopa ere eskuratu zuen finalean Errotagain menderatu ostean.

### 20 PARTIDU JOKATUKO DIRA ASTEBURUAN

Zapatu eta domeka bitartean talde guztiek euren lehendabiziko partidua jokatuko dute. Antolatzailiek puntualitatea eskatu nahi diete partaide guztiei eta, era berean, partidua arbitratzeko orduan zorrotz jokatzeke, irainak eta horrelakoak zigortuz. Egindako zozketaren arabera, orrialde honetan ikus dezakezue zela geratu diren multzoak.



Aurten ere faboritoen artean izango dugu Errotagain taldea.

ARTXIBOA

## ASTEBURU HONETAKO PARTIDUAK

### ZAPATUA, IRAILAK 25

#### KANPOAN

**09:30:** Patatus-Amilotx  
**10:30:** Ari Ari-La Juve  
**11:30:** Eri-Pagomendi  
**12:30:** Ion Autoak-Vacalouras  
**16:00:** Bar Canalejas-Errotagain  
**17:00:** Ortz-Buya  
**18:00:** Irubide Jatetxea-Mo(ko)lotov

**Ari Ari**  
**Eri**  
**Ion Autoak**  
**Pagomendi**  
**Ortz**  
**Irubide Jatetxea**  
**Buya**

### DOMEKA, IRAILAK 26

#### BARRUAN

**09:30:** Azpeitxi Jatetxea-Pinturas Bergara  
**10:30:** Bildurbarek Opel Lam-Mongatxurak  
**11:30:** Soropotroak-Shaktale  
**12:30:** Patxaran Team-Urrutxurtu  
**16:00:** Moskis-Etengabe  
**17:00:** Agirrebeña Jatetxea-Bayer  
**18:00:** Agiñazpi-Torrekua  
**19:00:** Uve Bikoitza-A Ze Flaxa Etxagi  
**20:00:** Amozkibar-Tom Cat Argandolas

**Bildurbarek Opel/Lam**  
**Soropotroak**  
**Patxaran Team**  
**Shaktale**  
**Agirrebeña Jatetxea**  
**Agiñazpi**  
**Uve Bikoitza**  
**Soropotroak**  
**A Ze Flaxa Etxagi**

#### KANPOAN

**09:30:** Txipiron-Xurruapak  
**10:30:** Komando Piperrak-FAC  
**11:30:** Guadalest-Ufala  
**12:30:** Aterpe-Artusamak

**KomandoPiperrak**  
**Guadalest**  
**Aterpe**  
**Ufala**

### OHARRA

**Izen-ematea** egiterakoan ordaindu beharreko diru kopurua (22.000 PTA) oraindik ordaindu ez dutenek, datorren martitzeneko, hilak 28, arratsaldeko 6ak arte dute horretarako azken eguna.

## AURTENGO MULTZO ETA TALDEAK

### A multzoa

Ari Ari  
 Azpeitxi jatetxea  
 Eri  
 Etengabe  
 Irubide jatetxea  
 La Juve  
 Mo(ko)lotov  
 Moskis  
 Pagomendi  
 Pinturas Bergara

### C multzoa

Agirrebeña Jatetxea  
 Amilotx  
 Amozkibar  
 Bayer  
 Bildurbarek Opel Lam  
 Mongatxurak  
 Patatus  
 Patxaran Team  
 Tom Cat Argandolas  
 Urrutxurtu

### B multzoa

A Ze Flaxa Etxagi  
 Agiñazpi  
 Buya  
 Ion Autoak  
 Ortz  
 Shaktale  
 Soropotroak  
 Torrekua  
 Uve Bikoitza  
 Vacalouras

### D multzoa

Artusamak  
 Aterpe  
 Bar Canalejas  
 Errotagain  
 FAC  
 Guadalest  
 Komando Piperrak  
 Txipiron  
 Ufala  
 Xurruapak



# San Martinetako kirol probak

Era guztietako jai ekitaldiak antolatu dira aurten San Martin jaien inguruan eta kirolak ere izan du tokia: txirrindularitza, krosa, xakea eta goitibeherak izan dira protagonista.

Iban Latasa (Telcom) txirrindularia izan zen zapatuan jokaturako San Martinetako lasterketaren irabazlea. Ibilbideko 126 kilometroak bete ondoren, Latasa bakarrik heldu zen Ibargaraira, eta 4. segunduko tartea ateratzen zion lau lagunez osaturako talde txoari.

Ibanen atzetik, Jose Luis Pradera (Pinturas Banaka), Jon Del Rio (Born-Jay) eta Ignacio Merino (Pinturas Banaka) sailkatu ziren. Ion Unamuno (Iberdrola) herriko ordezkari bakarrak ez zuen egun onik izan zapatuan, eta 87. postuan sailkatu zen, 15 minutura. Argazkian, Nere Amaia Zabala kirol zinegotzia Ion Unamuno (herriko onena) eta Iban Latasa irabazlearen ondoan.

## 90 PARTAIDE KROSEAN

Kantabriako Pielagos taldeko korrikalariak nagusitu ziren zapatuan jokaturako San Martin krosean. Guztira, 90 partaide izan ziren. Zaleak taldeko ordezkariak pozez gainezka zeuden lortutako partaidetzarekin. Antolaketa dagokionez, hu-



rengo batean zirkuitua erabat ixtea komeniko litzateke, korrikalarietako auto eta jende artean ibili behar izan baitzuten ibilbidearen hainbat puntutan. Irabazleak honako hauek izan genituen: benjaminetan, Belen Martinez (Pielagos) eta Aitor Maiztegi bergararra; alebinetan, Elena Martinez (Pielagos) eta Asier Crespo (Bergara); infantiletan, Rocio Garcia (Pielagos) eta Juan Mari Mendoza (Bergara); kadetetan, Veronica Crespo (Pielagos) eta Ion Beistegi (Bergara); juniorretan, Laura Solorzano eta Javier San Juan (Pielagos taldekoak biak); seniorretan, Sorkunde Viqueira (Duran-

go) eta Jesus Manuel Manso (Pielagos) eta, azkenik, berteranoen kategorian Cesar Perez donostiarra eta Mari Carmen Garcia arrasatearra.

## ASENTZIO-ANGIOZAR

Hamahiru bikotek hartu zuten parte zapatuan Asentzio eta Angiozar artean jokaturako goitibehera proban. Euskal Herriko Goitibehera Ligaren azken aurreko proban Larrañaga-Larrañaga Aramaioko bikoteak eskratu zuen garaipena. Egingako bi saioetan euren denborarik onena 2 minutu eta 56 segundukoa izan zen. Andoni Olabarria eta Carlos Gutierrez bergararrak 9. tokian sailkatu ziren (3:10).

## XAKE MAISUAK

Alex Veingol estoniarrak irabazi zuen domekan Bergaran jokaturako Nazioarteko Xake Torneo Irekia. Estoniarrak 6 puntu eskuratu zituen eta bere atzetik Mario Gomez euskalduna, Luis Bernal, Alex Panchenko ukrainiarra eta Diego Del Rey sailkatu ziren, guztiak bosna punturekin. 64 lagun aritu ziren lehen.

Gainerako kategorietan hauek izan genituen irabazleak: Mario Leon eta Jorge Martinez errioxarrak (10 eta 12 urtetik azpikoetan) eta Albanta Iglesias, Pablo Fernandez eta Alfredo Araujo kantabriarrak 14, 16 eta 18 urtetik beherakoetan.

Irizar 2  
☎ 943 76 14 95

**JAUJA  
KIROLAK**

Afariak ematen ditugu

"Txanbolintxerokua"

BKP LA UNION

Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

FRONTOI

TABERNA

Fraiskozuri z/g. 943 76 05 09

REMENTERIA

**Altzariak**

Egongelak / Logelak  
Aukera guztiak / Enkarguak

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29



## Luqueren aldeko aerobitona zapatuan

**Raul Luque** Pazkuetan larriki zauritutko 19 urteko gaztearen aldeko aerobitona izango da bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan, 17:00etan. Gogoratuko duzuen, Raul Luque Bideberririk errekarra jausi zen jaietan eta abuztuaren 25etik Arrasateko Aita Menni eritetxean ingratuta dago. Hilabeteko gastuak 900.000 pezetakoak dira eta gastu horri aurre egiteko, Raulen lagunek hainbat ekimen antolatzeari ekin zioten irailean. Bolu eta Giartzu gimnasioek eta Udalak biharko aerobitonaren antolaketan kolaboratu dute. Bihar, 17:00etatik 19:00etara, aerobiczaleek ezinbesteko zita izango dute Frontoian, beraz.

### MILA LAGUN

Antolatzaileen arabera, "Bergara eta inguruko herrietako kirolzaleak etorriko



Bihar, Frontoian, 300 kirolzale eta 700 bat ikusle biltzea da helburua.

direla espero dugu eta kantxan zein harmailetan bildutakoek primeran pasako dute". Monitore lanetan Hugo Lazaro (Donostiako Mundaiz taldekoa), Idoia Moreno eta Oihana Iturralde (Bolu), Gema eta Marisabel Otaño eta Amaia Zabaleta (Giartzu), Nuria Rodriguez

eta Amaia Carrillo (udal ikastaroetako monitoreak) arituko dira. Aerobitonean parte hartu nahi dutenek zein ikusleek 1.000 pezeta ordaindu beharko dute.

Orain arte milioi eta erdi pezeta batu dira Raulen alde antolatutako zozketa eta jendearen laguntzei esker.

## Aranzabal Lagunartea

**Aranzabal** Lagunartean urriaren 3an Realak Zaragozan jokatu duen partidurako irteera antolatu du. Bidaia eta sarrera, 5.000 pezeta inguru (sarreraren prezioaren arabera). Lagunartekoek prezio erdia ordainduko dute. Izenematea Bar Deportibon (2.000 pezeta) domekara arte zabalik.

## Karteldegia

**Futbole**an, infantil taldeak Amaikak Bat taldearen aurka jokatu du zapatuan 11etan Ipintzan eta lehen mailako jubenilek UDAREN aurka, 17:00etan Agorrosinen. Eskubaloian, berriz, Iraundi Bergara eta Urola aurrez aurre izango dira zapatuan 18:30etan Kiroldegian. Pilotan, klubaren arteko txapelketan, gaur eguakitza, 19:30etatik aurrera Udal Pilotalekuan 2. mailako kadeteek Hernaniren aurka jokatu dute, jubenil lehen mailak San Estebaren aurka (eskuz banaka) eta nagusien bigarren mailako bi bikoteek Elgoibar eta Azkoitiako bikoteen aurka.

### IÑAKI EGUREN/ Harrijasotzailea izandakoa

## "Gaztetan harripean sufritzen ikasi nuen"

18 urte igaro dira azken aldiz harria altxatzen ibili zenetik, eta domekan Nikolas Agirrezabal zenari Angiozarren eskainiko zaion omenaldian parte hartuko du 100 kiloko zilindroarekin. Gaztetan harrijasotzailerik onenetakoa izan genuen.

**G.** Zelan animatu zara berriz harria altxatzera?

**E.** Nikolas laguna nuen. Orain 20 bat urte txanda librean aritu ginen elkarrekin aizkorarekin, Osintxun, eta harrezkero harreman ona geneukan. Omenaldian parte hartu nahi nuen, bestelako asmorik gabe.

**G.** Gogorra egin zaizu berriz harriarekin aritzea?

**E.** Bai. Kailoak joanda neuzkan eta berriz hasitakoan hanka birtartean, tripa gainean eta bizkarrean sufritu dut. Irailean hasi nintzen entrenatzen Pedro Salegi betiko managerrarekin, asteen pare bat aldiz. Gimnasia ere egin dut, batez ere belauak eta gerria lantzeko.


**G.** Domekan zein asmo?

**E.** 100 kilokoarekin bi minutuko saioa egingo dut; ez daukat marka jakinik egiteko helbururik. Kurioso eta estilo aldetik txukun aritzearekin pozik.

**G.** Gazte denboran zein izan zen zure markarik onena?

**E.** Gogoan daukat Azpeitiko plazan, 20 urte nituela, 163,5 kiloko harria 90 aldiz altxatu nuenekoa, 10 minutuko hiru

txandatan, Endañeta VI.aren aurka. Zelai, Goenatxo..., gaur puntan dabilzanen kontratzen nintzen; gazte mailan Euskal Herriko hiru txapela lortu nituen. Gero lagatzea erabaki nuen, baina harripean sufritzen ikasi nuen.



## Frontenisa

**Binakako** frontenis txapelketa jokatu da Angiozarren urriaren 2tik azaroaren 6ra, zapatu goizetan. Izenematea, irailaren 30era arte Kirol Zerbitzuan. Egun horretan parte hartzaileen bilera Kultur Etxean.



**1. ETXEBIZITZAK**

**SALDU**

Masterreka. Amueblatua. 941 24 39 02.

Lizarratik 5 km. ra pisua salgai. 943 76 23 12.

Etxea eta lursaila salgai Olan. 943 76 06 92.

Pisua salgai Zubiaurren. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m<sup>2</sup>ko ganbara. 943 76 21 80.

Zubiaurre. 943 76 49 30.

Pisua salgai Huelvan, garajeduna. 943 76 40 25.

Zabalotegi dorrea. 943 76 40 24.

**ERRENTAN EMATEKO**

Bi oheko logela. Aretxabaletan. 943 77 12 54.

Pisu amueblatua Antzuolan. 943 76 21 06.

Torremolinos. Hondartzan ondoan. 943 76 33 58.

**ERRENTAN HARTZEKO**

Pisua hartuko nuke alokairuan Bergaran. 689 991 070

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatorz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

**1. ETXEBIZITZAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Etxe konpartituak  
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**3. LOKALAK**  
Saldu  
Erosi  
Errentan emateko  
Errentan hartzeko  
Bestelakoak

**4. LANA**  
Eskaintzak  
Eskaearak  
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**  
Eskaintzak  
Eskaearak  
Bestelakoak

**6. IBILGAILUAK**  
Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**  
Saldu  
Erosi  
Bestelakoak

**8. DENETARIK**  
Saldu  
Erosi  
Eman  
Hartu  
Trukatu  
Galdu  
Aurkitu  
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**  
Agurrak  
Kontaktatuak  
Deiak  
Bestelakoak

**ETXE KONPARTITUAK**

Bilbon pisua konpartituzeko laguna behar da. Deitu 943 76 03 21 telefonora.

Neska irakasle frantses batek gazte jendearrekin pisua konpartituko luke Bergaran. 943 76 46 54.

Bilbo. Lagun bat edo bi behar dira pisua osatzeko. 943 76 28 17 / 76 12 14.

Bilbo (S. Inazio). Bi lagun behar dira. 943 77 13 77 / 945 44 50 53.

**2. GARAJEAK**

**SALDU**

Ibargarai. 943 76 00 93.

Ibargarai. 943 76 44 25.

Espoloia. Garajea salgai edo alokairuan. 943 76 42 86.

Martzial Agirren garajea bikoitza. 943 76 33 88.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Koldo Eleizalde. 943 76 36 34.

Garajea salgai Bolun. 943 76 19 69.

**ERRENTAN EMATEKO**

Garajea alokairuan Ibargarain. 943 76 33 76.

Antzuolan, Ibarrrondon. 943 76 61 15.

**3. LOKALAK**

**SALDU**

Zubiaurren. 100 m<sup>2</sup>. 13,5 milioi. 943 76 11 13.

**ERRENTAN EMATEKO**

Ibargarain, bulego lanetarako prestatuta. 607 34 46 58.

Matxiategi. 943 76 22 09.

Zubietan 136 m<sup>2</sup>. Deitu 943 76 08 18 telefonora.

**4. LANA**

**ESKAITZAK**

Etxe lanak edo haurrentzako zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Ana).

Mutila lanerako gertu. 943 76 04 40.

Neskek, goizez, haurrentzako zaindu edo etxe lanak. 943 76 46 07.

Pertsona nagusiak zaintzen dituz gaur. 610 01 06 19

Emakume batek zaharrrak zaindu edo etxe lanak garbitu. 600 600 531.

Emakumeak etxe lanak edo atariak garbitu. 619 52 98 04.

Emakume esperientziadunak denda lan egiteko luke. 943 76 07 68.

Lanak ordenadorez prestatzen dituz. 943 76 10 94 (arratsalde).

Neska edozein lanetarako gertu, arratsalde. 943 76 00 24.

Klinika laguntzaileak gaisoak edo zaharrrak zainduko lituzke. 609 77 01 33 (Asis).

Urmeak zaindu arratsalde. 943 76 34 48 (Marta).

**ESKAERAK**

Neska behar da haurrentzako zaindu eta etxe lanetarako. 943 76 31 86.

**FRANTSES IRAKASKUNTZA**

**1999-2000**  
ikasturtea

Izena emateko epea: irailaren 30era arte.

**Informazio gehiago:**

Mizpildi 3, 1. ezkerria. BERGARA.  
Tf. 943 76 30 55

Ordutegia: 10.00-12.00 eta 17.00-19.00



**Esperientziadun elektrikaria behar da**

943 76 91 45

**Zerbitzaria eta sukalde laguntzailea behar dira**

943 76 19 09  
(21:00etatik aurrera)

**IBARGYREN PENTSYAK**

BIONA pentsuen biltegia,  
BIOTER produktuak,  
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79



Emakumea behar da haurra zaindu eta etxeko lanetarako. 943 76 08 97.

30 urtetik gorako emakumea behar da pertsona edadetua zaintzeko. Deitu 629 26 39 45 telefonora.

Neska behar da etxeko lanetarako. 943 76 31 11.

Neska gaztea behar da haurrak zaintzeko arratsaldez. 943 76 70 33.

Bi haur zaindu eta etxeko lanetarako neska behar. 943 76 15 61 (gauzez).

**5. IRAKASKUNTZA**

**ESKAINTZAK**

Ingeles filologian lizentziatuak klaseak eman. 943 76 30 28 (Ana).

Ingeles klaseak. Espereintzia. 943 76 51 23.

Solfeo eta piano klaseak. 943 76 72 69.

OHO. 943 76 37 94.

**6. IBILGAILUAK**

**SALDU**

Renault Clio Williams (SS-AP). 945 24 11 25

Fiesta 1300 (SS-W) prezio ona. 943 76 63 29.

Lancia Delta. 943 76 51 01.

Peugeot 205. Prezio ona 943 76 36 74.

Honda CBR 600 F motorra. 630 56 55 06.

Renault 19-16 V (SS-AV). 300.000 pezeta. 943 79 10 08.

Ford Sierra 2.3 diesela (SS-U). 943 76 40 54.

Kawasaki GPZ 400 motoa. 943 73 18 72 /73 12 82.

Yamaha Jog Scooter motorra (90 cc.) salgai 943 73 18 72/73 12 82.

Citroen Saxo 1.1i. Bi urte. 943 76 12 66 (Xabi).

Chrysler kotxea salgai. 943 76 42 76.

Peugeot 405 Mi 16. Aire egokitua eta narruzko tapizeria. 943 76 03 01.

**7. ANIMALIAK**

**SALDU**

Artzain aleman txakurkumeak. Pedigreeduak. 696 05 73 46.

Hiru txakur ar eta eme bat emateko. Borondatea jasotzen da. 943 76 49 09.

**8. DENETARIK**

**SALDU**

Karabina salgai egoera onean. 943 76 38 87.

Fotokopiadora, faxa eta lanerako mahaia. 607 34 46 58.

Errepideko Zeus bizikleta salgai. 943 76 49 88.

Ume-kotxe estalkiduna. 943 76 06 89.

Karro denda. Ondo ekipatuta. 943 76 42 86.

Marrazketa mahaia eta aulkia. 943 76 41 96.

Bi ohe, idazmahaia, altxariak eta apalak. Harritz egurra. 943 76 43 37.

Merida mendi bizikleta, berri-berria. Aluminiozkoa. 943 76 05 88.

Kitarra elektrikoa. 943 76 44 27 (Unai).

Idazmakina elektronikoa. 943 76 42 76.

Sony bideokamera prezio onean. 639 936 841

**EROSI**

Bigarren eskuko garbigailua erosiko nuke. Deitu 607 47 14 61 telefonora.

**GALDU**

Erlojua galdu dut, atzealdean 1967-VI-17 eta 1992-VI-17 fetxak dituen. 943 76 27 17.

Urrezko pultsera galdu dut Toki-Eder-Fraiskoziuri artean. 943 76 42 58.

**AURKITU**

San Lorentzoko garajetako bi giltza aurkitu ditugu. 943 76 35 31.


**9. HARREMANAK**

**KONTAKTUAK**

41 urteko gizon batek emakume bat ezagutu nahi luke. 943 76 40 03.

**BESTELAKOAK**

Aita bazara edo izateko bazara eta haurra gehienera moduan ez baduzu hezi nahi, zure laguna izan nahi dut. 943 76 65 12 (Emilen).



**Langai**

Euskal Lan Zerbitzua

**ANTZERKI MONITOREA**  
Bilbo. 21763/1

**TORNULARIA**  
Deba Garaia. 23312/1

**KAMIOI GIDARIA**  
Deba Garaia. 23358/1

**ZERBITZARIA**  
Gernika. 23468/3

**ASEGURU SALTZAILEA**  
Arabar lautada. 23644/1

**KOMERTZIALA**  
Valencia. 23729/6

**TORNULARIA**  
Urola Erdia. 23791/2

**INFORMATIKA, LH II**  
Bilbo. 23860/1

**KARATE MONITOREA**  
Bilbo. 21110/1

**DENDARIA**  
Bilbo. 21923/6

**PATINAJE MONITOREA**  
Ibaizabal. 21766/1

**MAKETATZAILE/DISEINATZAILEAK, 2**  
Arabar lautada. 22755/2

**MEKANIKARIA**  
Bilbo. 22906/2

**MANTENIMENDU ELEKTRO-MEKANIKORAKO TEKNIKOAK**  
Durangaldea. 22990/5

**ADIMEN URRIKOAK ZAINTEKO MONITOREA**  
Donostia. 23313/3

**SUKALDARI LAGUNTZAILEA**  
Durangaldea. 23245/2  
**DELINEATZAILEA**  
Bilbo. 23228/4

**INJINERU TEKNIKO MEKANIKOAK**  
Donostia. 23262/1

**Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.  
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

**ARDATZA**  
*Brikolaketa*

Ateak eta zokaloak  
Horma armairuak  
Sarrailak eta manilak  
Koadroen enmarkazioak  
Era guztietako moldurak  
Apalak  
Kajoiak

Masterreka 4 behea  
☎ 943 76 18 93

**JOXAN**  
**ARRAINDEGIA**



Ibargarai 24  
Tf. 943 76 70 29



**AGENTEA-DELEGATUA**



**IRAEGI**  
ASEGURUAK

**LAN ESKAINTZA**

Komertziala Bergararako  
*Egun osoko edo egun zatiko jarduna*

**Baldintzak**


- Erdi mailako ikasketak
- Sen komertziala
- Dinamikotasuna

Interesatuok laga zuen Curriculum Vitaea Ramon Maria Lili 6ko bulegoan 15 egun baino lehen.



USOA MENDIKUTE. Pintorea

## "Buru-belarri sartuta nago pop-artean"



Usoa Mendikute, bere lanetako baten aurrean.

**Arte Ederretako ikasketak amaitzeko urtebete gertatzen zaio eta dagoeneko hainbat pintura sari jaso ditu. Azkenak, San Martin jaietan eta Azkoitian. 22 urte ditu.**

**G.** Zorteko zaitugu azken aldian, lehiaketei dagokienez, behintzat.

**E.** Bai, Azkoitian saritu berri dute nire lan bat. Lehiaketa berezia izan da, aurtan bakarrik egin delako, herriaren sorreraren 675. urteurrena zela eta. Oso arrakastatsua gertatu da, 36 margo lan aurkeztu baitira. Lehen saria Mikel Garate azkoitiarrak, fakultateko nire irakasle batek, jaso du eta 500 mila pezeta eroan ditu. Bestalde, 100.000 pezetako hiru sari berezi banatu dituzte eta horietako bat niri eman didate. Horretaz gain, Azkoitiko Udalak 80.000 pezeta-ren truke erosi dit koadroa.

**G.** Zelako margo-lanak dira zureak?

**E.** Martxoan Nahikarin egindako erakusketarako oso lan sinpleak egin

nituen, marrekin jokatu-eta. Orain berriz, pop artean buru-belarri sartuta nago. Andy Warhol-en ildotik, kolore biziak erabiliz egin ditut azken lanak. Roy Litchestein ere gustuko dut eta Bergarakoak, Azkargorta eta Laskurain.

**G.** Bergarako pintoreekin baduzu harremanik?

**E.** Bai, Irizarreko ganbaran pintatzen dut eta bertan elkartzen gara herriko hainbat pintore. Orain, Bolun zabaldutako den arte gune berrira pasatuko gara, seguruena, eta han beste pintore batzuekin ere izango ditut harremanak. Hori oso ona da ikasteko. Gainera, lokai egokia da lan egiteko, argitsua eta zabal delako.

**G.** Zer moduz fakultatean?

**E.** Esperientzia polita izan da eta asko ikasi dut, batez ere, ikasleekin-eta. Hala ere, Bergarako jende gutxi-egiten ditu Arte Ederretako ikasketak, zaletu asko egon arren. Antza denez, karreradun artista gutxi dago Bergaran.

## Nagore Zigandak eta Aitzol Enak irabazi zuten Moises Azpiazu saria

**Aitzol Ena** bergararrak eta Nagore Ziganda hernaniarrak irabazi zuten joan zen eguakitzean Udal Pilotalekuan jokatu-tako Moises Azpiazu dantza sueltoko txapelketa. Aurtengoa XV. edizioa izan da eta 15 bikote aritu ziren lehian. Bigarren, Azpitarte anai-arrebak sailkatu ziren; hirugarren,

Kimetz Larrañaga eta Ene-ritz Epelde Euskadiko txapeldunak; laugarren, Asier Ena eta Irantzu Lizarralde bergararrak, eta bosgarren, Arantza Garin eta Ekain Sardon. Irabazleak, Aitzol eta Nagore, bikain aritu ziren eta Euskadiko txapeldunen aurretik sailkatzea lortu zuten.



Nagore Ziganda eta Aitzol Ena Euskadiko txapeldunordeak dira.

**GASTON Y DANIELA**

Oihal batek aldatzen du dena

**BERGARA**

Kruz Gallastegi 3,

☎ 943 76 07 37

**Kabutzia**

**ARRAINDEGIA**

Fraiskozuri 6 Tf. 943 76 56 61



# Orfeoiaren amaiera kontzertu bikaina

Frontoia leporaino bete zen Orfeoiaren 75. urteurreneko azken emanaldian

**Bergarako Orfeoiaren 75. urteurreneko amaiera kontzertu bikaina eskaini zuten joan zen zapatuan, Udal Pilotalekuan, Bergarako Orfeoia eta Bilboko Orkestra Sinfonikoak. Agur dotorea ospakizun urteari.**

Kontzertuan parte hartu zuten guztiak egon ziren ondo: Juan Jose Mena zuzendaria, Bilboko Orkestra Sinfoniko 90 musikariak eta Bergarako Orfeoiko gaur egungo eta lehenagoko ahotsak, eta okasio berezarako Orfeoia indartu zuten beste abesbatz batzuetako kideak, 140 inguru. Guztien gainetik, lau bakarlariak: Peio Ormazabal tenorea, Maria Jesus Ugalde sopranoa, Yolanda Sagarazu kontraltoa eta Jago-ba Fadrique baritonoa.

Bikain egon zen, era berean, ikusleria, aspaldiko urteetan bezala, frontoi-koharmailak bete zituena. Bati baino gehiagori entzun diogu kontzertua luzeegia izan zela eta behar bada arrazoia izango du, jaialdiak hiru ordu iraun baitzituen. Bestalde, kontzertuan estreinatutako obra, Jesus Eigurenek Orfeoia-erendako propio idatzitako *Zerua goian, ta lurra bean* lana, entzungor egin zitzaizen askori, obra modernoa eta ohikoak ez direnak entzutera ohituta ez daudenei.




Juan Jose Mena zuzendariak, bakarlariek, musikariek eta abeslariek lan ona egin zuten zapatuan.

Bukaeran, emanaldian parte hartu zuten abesbatz eta talde sinfoniko guztietako zuzendariari oroigarri bana jaso zuten Orfeoiaren izenean eta Bergarako Orfeoia, bestalde, Bergarako Hiribildu Agiria jaso zuen. Kontzertua grabatu egin zen eta, seguruen CD formatuan argitaratuko da. Bestalde, Orfeoia-

ren historiari buruzko liburua ere argitaratzekotan dira Orfeoioak.

Bukatzeke esan dezagun, *Oliver!* ikuskizuna urriaren 16an antzetzuko dela Gasteizko Printzipal Antzokian. Bestalde, ETBk Columbiaren baimena jaso du *Oliver!* grabatu eta telebistatik emateko.



A. Fleming 5  
BERGARA  
Mobilak:  
907 44 50 38  
907 46 57 38

PANA DE ROKUA  
TATETXEAL

Asteburuetan bertako  
babak eta saiheskia

SALBADOR 10 ELGETA  
Tf. 943 76 82 73

DENA  
100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3

BERGARA  
MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA  
☎ 943 76 11 99 / 14 47.  
Faxa: 943 76 04 77



PINTURAS BERGARA S.L.

- INDUSTRIARAKO PINTURAK
- APAINKETARAKO PINTURAK
- GARBIKETAK
- ERROTULOAK

Aranerrika 32 behea. BERGARA. Telefonoa: 943 76 10 65. Faxa: 943 76 11 40.



denborapasa / LUMA

|    |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
|----|---|---|---|---|---|---|---|---|----|
| 1  | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
| 2  |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 3  |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 4  |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 5  |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 6  |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 7  |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 8  |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 9  |   |   |   |   |   |   |   |   |    |
| 10 |   |   |   |   |   |   |   |   |    |

**Ezker eskuma**

1. Triskantzak, sarraskiak. 2. Zerbaiti hezetasuna kendu. Errepikatuz, loa eragiten duen intsektua. 3. Sortu zituena. Zauriaren arrasto. 4. Amerikako estatu. Ez emeak. 5. Bokala. Infin., akitu. Herri nafarra. 6. Hortz-mota. Tona. 7. Begirunea merezi duena. Ogi egilea. 8. H<sub>2</sub>O. Ipar orratza. 9. Orezta. Infin., ahitu. 10. Nor, pluralean. Tantalioa. Eguzkia.

**Goitik behera**

1. Irabazlea. 2. Apal. Haiek. 3. Beldurtiak. 4. Errepikatuz, gorotza. Izan. Kanpo. 5. Arnas ezak hil. Zigaren erdian. Zintzoa. 6. Egur landua. Hizki baten izena. 7. Bat. Itsasuntziaren aurreko aldea. Bokala. 8. Pluralean, krustazeo-mota. 9. Asiako. Gura. 10. Eragiketa aritmetikoa. Kasik.

**Soluzioa**

10. Kanpeta. Ia.  
9. Asier. Nahi.  
8. Otarrainak.  
7. Branka. E. 8. Otarrainak.  
6. Zira. Iota.  
5. Iq. Ona.  
4. Ka. Ukan. At.  
3. Xume. Eurak.  
2. Xume. Eurak.  
1. Xume. Eurak.  
10. Ak. Ta. Ekia.  
9. Ura. Otana.  
8. Ura. Otana.  
7. Ura. Otana.  
6. Letagina. I.  
5. Ura. Otana.  
4. Feru. Arrak.  
3. Xukatu. Tse.  
2. Xukatu. Tse.  
1. Xukatu. Tse.

**bonofotoa**




Miguel Angel Elkorobereibar

**Zein da baserri honen izena?**

**galde debalde**

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Zer talde politikok osatuko dute Udala gobernu taldea legealdi honetan Bergaran?  
A- EAJk, EAK eta PPK  
B- EAJk, EAK eta PSE-EEK  
C- EAJk, EAK eta EHk
2. Zenbat talde arituko dira astebukaera honetan hasiko den futbito txapelketan?  
A- 40 talde  
B- 46 talde  
C- 44 talde
3. Nortzuk irabazi zuten Moises Azpiazu dantza sueltoko txapelketa?  
A- Aitzol Enak eta Irantzu Lizarralde  
B- Asier Enak eta Eneritz Epelde  
C- Aitzol Enak eta Nagore Zigandak



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Isabel Igartuarentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Isabeli! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Masterreka kalea** Galde Debalde: **1-B, 2-A, 3-C**

**BONOFOTOA**

**GALDE DEBALDE** 1: \_\_\_\_\_ 2: \_\_\_\_\_ 3: \_\_\_\_\_

Izen-deiturak: \_\_\_\_\_ Telefonoa: \_\_\_\_\_

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

**Scottex**  
komuneko papera  
12 erroiluko paketea  
**399 PTA!**  
Super BMen beti eskaintzarik onenak!



**Enpresaritza ikasketak egin zittuan eta Zuzenbideko lehen kurtsoan dihardu UNEDen. Laister Musika Eskolako idazkarixa izateari lagako dotsa, Deba Garai-ko Mankomunitatean ofimatika klasiak emon eta administraritza lanak egitteko.**

**Zer izan nahi ziñuan txikittan?**

12 urterekin abokatua izan nahi neban.

**Ikasle ona ziñen?**

Oso ona, unibertsitatera joan arte.

**Idazkari-zeregiñik gorrotagarrixena?**

Kontabilidadia eroatia.

**Eta atsegiñena?**

Eskolako umiekin harremana.

**Zuk zeuk instrumenturik jotzen dozu?**

Bai, 9 urterekin pianuarekin hasi nitzan; geroago soiñuarekin, baiña ez jatan gustau eta orain berriz pianuarekin nabil.

**Gutxien gustatzen jatzuna?**

Flauta travesera delakoa.

**Musika entzuteko unerik onena?**

Edozein momentu da ona.

**Zelako musika gustatzen jatzu?**

Bakailaua kenduta, danetik.

**Musika talde bat?**

La oreja de Van Gogh, Jarabe de palo...

**Egon zaren azken kontzertua?**

Orfeoia zapatuan emondakoa.

**Zein nota emongo jatzuke?**

Zortzi bat bai.

**Ze koloretakua ikusten dozu bizitza?**

Askotan grisa, baiña saiatzen naiz kolore-ak ateratzen. Eta proiektu handirik gabe, egunero bizi behar da.

**Negar egin dozun azkenengo aldixa?**

Hille hasieran. Amaren lagun bat hil zan.

**Eta zerekin egitten dozu barre?**

Gero eta zaillagoa da barre egitia baiña umien ateraldixekin.

# Teresa Aranzibia

**Etxeko lanik gorrotagarrixena?**

Baserrixan bizi naizenez, udan bedarra batzia eta pinudixak garbitzia.

**Besteengun baloratzen dozuna?**

Leiala izatia.

**Esan bai, baiña oraindik egin ez dozun gauza bat?**

Nueva Guineara joatia.

**Egon zara Donostiako Zinemaldixan?**

Ez.

**Filmeko protagonista izatekotan...**

Somersby pelikulakua.

**Afiziño bat?**

Irakurtzia.

**Liburu bat gomendatu.**

Septiembre, Rosamunde Pilcherena.

**Kiroliek egitten dozu?**

Gutxi, mantenimendu gimnasia bakarrik.

**Urtaro bat?**

Udazkena. Hego haizea dabilenian-eta.

**Zerk jartzen zaittu sutan?**

Jende faltsuak.

**Beldurra zeri?**

Heriotzari, haundixa.

**Manixa bat?**

Eguna pasatu arte egutegiko orririk ez kentzia.

**Zenbat ordu egitten dozu lo?**

Sei bat.





*Maritxu Hajoi*  
gauerako  
**orrazkera eta  
makilajeak**



**Ostadar**  
ILEAPAINDEGIA



**Ileapaindegi mistoa • Estilistak**  
Espoloia 4. behe. Bergara Tf. 943 76 72 76



**SEGUROS LAGUN ARO**  
ASEGURUAK



**RAC**  
VASCO NAVARRO

---

**AGENTEA-DELEGATUA**



**IRAEGI**  
ASEGURUAK

*Ramon Maria Lili 6, behea*  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Telefonoak: 943 76 23 30 • 943 76 41 54  
Faxa: 943 76 41 54  
ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera:  
9.00-14.00 eta 16.00-20.00  
Larunbatetan: 9.00-13.00





## Antzuolako 1965eko kintoak

Aste honetako erretratu zaharrea antzuolar talde bat ageri zaigu. 1944. urtean jaiotakoak dira eta argazkia 1965ean Antigua auzoan aterata dago, gizonezkoak soldaduskara joan baino egun batzuk lehenago. Udaberri aldera, despedida bazkaria egin zuten Arin jatetxean eta, soinu-jole eta panderoaren laguntzaz, kalean gora eta kalean behera ibili ziren. Soldaduskatik bueltan izango zuten bai elkarri zer kontatu. Oraindik ere 1965eko kintoek (gizon eta emakume) urtean behin biltzeko ohitura daukate. Aurten Gernikara irteera egin zuten 20 bat lagunek. Goiko argazkian, ezkerretik esku-mara:

**Zutik:** Jose Ignacio Garitano, Arantza Ola-tua, Angelita Ena, Jose Ramon Lezeta, Carmen Lizarralde, Mariasun Larrañaga, Juan Miguel Irizar, Matilde Ortueta, Josefa Fernandez, Juan Bote eta Virginia Dupoi.

**Erdi makurtuta:** Angel Jauregi, Fernando Navarro, Miguel Agirre, Pedro Mari Irizar eta Rosarito Igarza.

**Aurrean:** Jose Ignacio Bareño, Pedro Jose Lete, Jose Mari Eguren, Marcos Elorza, Jose Javier San Sebastian, Martin Muruamendiaraz, Jose Ignacio Olabarria, Magdalena Egaña eta Juan Lete.

Argazkia: Juan B...

**DEBAGUNEK –Deba Garaiko Euskara Elkartearen elkargoa– urtero argitaratzen duen egutegirako argazkiak behar ditugu Antzinako lanbideen (errementaritzza, burdinola, ehungintza, karegintza, larrugintza...) argazki zahar edo berriak baldin badauzkazu, BERRIGARARA edo JARDUNERA ekartzea eskertuko genizuke. Argazki denak itzuli egingo dizkizugu.**  
Berrigara: Errotalde jauregia. 943 76 03 97. Jardun: Kartzela zaharra. 943 76 08 19

**Garnish**  
**Bitxitegia**

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57



**Zumelaga**

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA  
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21




**MEMESA**

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25





Zuretzat,  
bidalketa sistema  
fidagarri bat edukitzea  
ez da aukerarik garrantzitsuena.

## Bakarra da.

BIDALI BEHARREKO ZERBAIT  
GURE ESKUETAN JARTZEN DUZUNEAN,  
AHALEGIN ETA ITXAROPEN OSOZ  
EGINDAKO LANA, JASO DUGUN MODUAN  
MERKATURATZEA NAHI DUZU.

BESTALDE, BEZEROEKIKO KONPROMISO BATZUK

BETE BEHAR DITUZU,

ALDI BEREAN HAUEK ERE

BERAIENAK BETE AHAL IZAN DITZATEN.

BIDALKETA,

ZEURE NAHIAREN ARABERA

EGITEA ESKATZEN DUZU,

BESTERIK EZ.

HORI DELA ETA, BIDALTZE SISTEMA EGOKI

ETA GUZTIZ FIDAGARRIA ESKAINTZEN DIZUGU,

HORRELA ZEURE BETEBEHARRAK

GARAIZ BETE DITZAZUN.

HORRELAKOXEA DUZU ENPRESETAKO PAKETEA

ATEZ ATE BANATZEN,

ERABATEKO ESPEZIALIZAZIOA

ETA NAGUSITASUNA LORTU DUEN ZERBITZUA,

GUIPUZCOANAREN ZERBITZUA. ZEUREA.



**GUIPUZCOANA**

*Paketeen Garraio eta Banaketa*



*Beti garaiz.*



ISO 9002



# Aldi/bi

## JAIOBERRIAK GAR

### ETA AURRETIK GOA

#### BIGARREN ESKUKO AUTOAK SALTZEN DITUGU



Grupo  
**Nortekar**

#### BILBOCASION

Jaen, 11  
Tel.: 94 410 16 61  
BILBO

#### AUCASA

P. Larramendi, 10  
Tel.: 94 410 39 39  
BILBO

#### ALDIAK

Mallabierna auzoa, 4  
Tel.: 94 681 67 66  
IURRETA

#### ALDIBI

Zigarrola, 1  
Tel.: 943 71 20 02  
ARRASATE

#### ALDIBI

Olaso pol., z/g  
Tel.: 943 74 20 37  
ELGOIBAR

#### ALDIKAR ALMOVIL

Colon pas., 27  
Tel.: 943 27 09 99  
DONOSTIA

#### ALDIKAR ALMOVIL

Oria etorb  
Tel.: 943  
LASARTE